

# elkar

UDA 2025
80. ZENBAKIA
www.elkar.eus

## GOIATZ LABANDIBAR

*ERESIA*, NOBELA HEROIAREN INPERFEKZIOEN BILA

+

## JAVIER CERCAS

*EL LOCO DE DIOS EN EL FIN DEL MUNDO*, UNA NOVELA CON EL PAPA EN EL VATICANO

## ALAITZ LECEAGA

*LA ÚLTIMA PRINCESA*, UN THRILLER EN EL LEMOIZ DE LOS AÑOS 90

## IZEN PROPIOAK

MIREN AGUR MEABE, FRANCK DOLOSOR, XABIER MENDIGUREN, MAIXA ZUGASTI, BERTOL ARRIETA, ANE ELGEZABAL, HARITZ LARRAÑAGA, GARI, XABI SOLANO, GORKA LÓPEZ, JESUS MARI OLAIZOLA *TXILIKU*, IRATI JIMENEZ, ANTTON OLARIAGA, JOSEAN MORLESIN

8435226161099

# Egin IRRIAren HARPIDETZA...

## eta jaso CD ipuina edo DVDa opari!

## 2 eta 6 urte bitarteko haurrentzako aldizkaria

# GOZATU IRRIA!




## URTEAN 49 euro!

HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: (0034) 943 30 43 32 zenbakira deituz

harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz

www.irria.eus/harpidetza-n izena emanez

Orain, **www.irria.eus**-en topatuko dituzu IRRIAren edukiak eta euskarriak!




IRRIEN LAGUNAK

berria ekar Katxiporreta




JOSEAN MORLESIN




Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar
flickr elkartaldea
elkar_taldea
elkarTaldea
postdata.elkar.eus

elkar
www.elkar.eus

elkar liburu-dendak

ALGORTA (GETXO) Telletxe 11 94 491 66 16
ARRASATE Erdikokale 14 943 79 78 29
BAIONA Gouverneurs 9 559 59 35 14
BARAKALDO Merindad Uribe 14 944 37 22 76
BASAURI Dr. Jose Garai 11 94 426 13 84
BERGARA Ibargarai 7 943 76 40 50
BILBO Licenciado Poza 14 94 443 47 08
Zamudioko ataria Zazpikale 94 416 14 50
Iparragirre 26 94 424 02 28
DONOSTIA Fermin Calbeton 21 943 42 00 80
Bergara 6 943 42 63 50
GASTEIZ San Prudencio 7 945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus 945 14 16 70
HERNANI Kale Nagusia 30 943 55 15 37
IRUN Colon pasealekua 8 943 63 17 26
IRUÑEA Comedias 14 948 22 41 67
Leire 9 948 17 55 38
TOLOSA Arostegieta z/g 943 67 35 33




SERIE EMPÍREO
DE REBECCA YARROS

EL FENÓMENO DEL QUE TODO EL MUNDO HABLA

Planeta



# GOIATZ LABANDIBAR

**Narraziogintza da Goiatz Labandibarrentzat (Oiartzun, 1985) bere "habitat literario naturala", baina buruan zuen istorioa kontatzeko eleberri forma eman dio argitaratu berri duen *Eresia. Hil-kanta aitari* liburuan. Euskal Errepublika independenteko lehendakaria hil ostean, bere alaba Talak nazioaren "heroia" izan den horrengana eraman gaitu. Bere idazteko ohiko modutik aldendu eta "konpultsiboki" idatzi duela aitortu du Labandibarrek.**

**Testuinguru jakin batean kokatzen da eleberria. Erreferendum baten osteko agertokian.**

Testuingurua ez da garrantzitsuena, iritzi publikoarentzako heroiak diren horien inguru hurbilak beraien bizitza pribatua nola bizi duen kontatzeko sortutako agertokia baino ez da. **Rebeca Solbit**en *¿De quién es esta historia?* liburuan irakurri nuen **Martin Luther King** ziurrenik aita txarra izan zela, baina nolabait bere seme-alabek barkatu egin behar ziotela egindako on orokor horren izenean. Pentsatu nuen hori bere seme-alabek esan beharko luketela. Hori izan zen eleberriaren abiapuntua, galdera horrek niri eragin zidan hausnarketa.

Baina nik ere ezin nuen inor errealaren izenean hitz egin, eta orduan, zerbait erabat fikziozkoa asmatu behar nuen. Nor izan daiteke heroi nazionala? Horrela sortu nuen Euskal Errepublika eta bertako lehen Lehendakaria, ez dakit utopia bat den, distopia… Momentu honetan zerbait irreala da, oso etorkizunekoa eta hortik abiatu nintzen testuingurua eraikitzen.

**Zein urtetan den ez da esaten, ezta?**

Saiatu nintzen momentu hori zein urtetan zen irudikatzen, baina oso zaila egiten zitzaidan hemendik 100 urtera esaterako gizartea irudikatzea. Horregatik ez da zehazten, etorkizuna da, baina ez dakizu 2030ean edo 2150ean den.

***Eresia. Hil-kanta aitari* dio izenburuak, nor da aita hori eta ondorioz, nor da alaba?**

*Hil-kanta aitari* da Talak bere aitari egiten dion eresia. Bere aitaren heriotza eta heriotzaren ondorena kontatzen du eleberriak, eta horren bidez kontatzen du aitarekin duen harremana. Aitzol Agirre fikziozko Euskal Errepublika horretako lehenengo lehendakaria izan zena da, eta Tala bere alaba bakarra.

Aitzol Agirre ez da lehendakari bat bakarrik, bada aurretik Euskal Errepublika horren aldeko politikari bat. Bere ibilbide guztian politikaria izan da Talaren aita. Eta Talak beti horrela ezagutu du, baina egia da lehendakari izateak aldaketa bat ekarri duela. Aitzol Agirre ziurrenik




denentzat heroi bat da, Talarentzat izan ezik, Talak ez du alde politiko edo publikotik hitz egiten, alde intimo eta pertsonaletik kontatzen ditu bere bizipenak, oso subjektiboki.

**Talak erakusten digun politikagintzaren alde hori oraindik nahiko ezkutuan dagoela esango zenuke?**
Herrialde guztiek behar dituzte beren heroiak, denek dituzte, eta heroi horiek erabat goraipatzen dira. Agian azken boladan hasi dira heroi horien itzalak gehiago ateratzen, neurri batean behintzat; baina heroi horien alde intimoaren inguruan ez da inoiz hitz egin, hori etxean geratzen da. Aita, senar, seme edo lagun txarra izan arren, batzuetan beste guztia garrantzitsuagoa dela esaten da. Nik fokua hitz egiten ez den edo gorde nahi izaten den horretan jarri dut, ematen duelako iritzi publikoarentzat heroi diren horiek dena ona dutela eta dena argitasuna dela, baina pertsonak garen aldetik inor ez da perfektua eta Talak kontatzen dituenak aitaren inperfekzioak dira.

> *“Iritzi publikoarentzat heroiak diren horien inperfekzioetan jarri dut fokua”*

**Alderdiko kideek ere presentzia handia dute. Karikaturizatuta daude?**
Uste dut badirela nahiko karikaturak, bai. Batez ere alderdiko hiru pertsonaia aipatzen dira, Beñat, Aingeru eta Ihintza Ekiza. Bakoitzak rol ezberdina jokatzen du alderdian zein Aitzol Agirreren bizitzan. Badira nolabaiteko karikatura eta satira, baina aldi berean uste dut badirela askotan errepikatzen diren profilak, eta kasik berdin duela zein den alderdia. Batean edo bestean badagoelako ondoko leiala, oinordekoa edo protokolo eta komunikazio arduraduna. Talak bakoitzarekin duen harremana ezberdina da eta bere doluaren inbasio gisa bizi du bakoitzak egiten duena eta alderdiak hartutako erabakiak. “Nire aita ez da nire aita hil ondoren ere”, hori esaten du eta badu sentsazio hori.


AZALEKO ETA BARRUALDEKO ARGAZKIAK: IÑAKI ZAPIRAIN RETEGI

**Atal bakoitza agurraren zati bat da. Hasieratik zenuen pentsatuta egitura?**
Lehenengo kapituluak kontatzen du hurrengo kapituluak zeintzuk izango diren, alderdiak antolatutako agurrak zein atal dituen azaltzen duelako, eta hori idatzi nuenean jada horrela egituratu nuen liburua. Bukaerako esaldia zein izango zen ere argi nuen, banekien zerekin bukatuko zen, baina horretara nola iritsi ez nuen argi.




**ERESIA**
Goiatz Labandibar
ELKAR

**Bost bat egunen kontakizuna da, baina Talaren bizitzan aurrera eta atzera gabiltza, ezta?**
Bai, eta bere iraganean ez dago aita bakarrik, bestelako harremanak ere kontatzen dizkigu, eta harreman horiek Aitzol Agirreren alaba izate hutsak jada zipriztintzen ditu. Berak Tala izan nahi duen arren jendearentzat Aitzol Agirreren alaba da. Liburua irakurtzerakoan Tala ezagutzen duzu, lehenengo pertsonan kontatzen du eta ondorioz, etengabe ari da bere buruaz eta bere bizitzari buruz, Aitzol Agirreren alaba baino askoz gehiago dela erakusten du.

**Gazte Eguneko kamiseta, Labako kafea, Luix Mitxelena… Garrantzia eman diezu xehetasunei?**
Nire helburuetako bat Tala pertsonaia negartia ez izatea zen, irakurlearentzat ez izatea pertsonaia gogaikarria. Pertsonaia sinpatikoa bihurtu nahi nuen. Kontatzen dituen gauza asko nahiko unibertsalak dira. Euskal Herrian zein ez da joan bere herriko Gazte Egunera? Denak ere antzekoak dira, eta erraza da pertsonaia hor kokatzea. Uste dut lortu dudala pertsona gogaikarria ez izatea, badu bere nortasuna eta bere puntu errebeldea.

**Umorez beteta dago.**
Oso ondo pasatu dut idazteko momentuan, uste dut tonu horrek laguntzen duela protagonista negarti ez bihurtzen. Izan zitekeen oso nobela negartia, baina nire helburua bazen irakurleak sentsazio hori ez izatea.

**IRAITZ MATEO GOGORZA**
Kazetaria



## Proposamena



**GORKA LÓPEZ**
Escritor y montañero

# EL CRUJIDO CRIMINAL DEL HIELO

Un misil directo al más recóndito recoveco de la curiosidad almacenada en el cerebro. Así se podría calificar esta magnífica novela de suspense criminológico, dado que carece de somnolientos preámbulos, aburridas florituras descriptivas que despisten al lector, o pasajes decorativos carentes de importancia. De esa manera, con un estilo tan afilado que rasga la lógica sin miramientos, desde la primera hasta la última línea, es capaz de captar toda nuestra atención.
Y es que el rompecabezas que constituyen los primeros capítulos parece que toma cuerpo consistente según avanza la narración. Error sumo, suspense creciente, y vuelta a empezar: las piezas no encajan. Eso mismo le ocurre a la peculiar, por no decir esperpéntica, inspectora encargada de resolver una inaudita sucesión de cadáveres hallados en extrañas circunstancias. Con un único vínculo visible, el hielo, y otro invisible, un episodio ocultado bajo el peso de decenas de hojas pretéritas del calendario.
La totalidad de los personajes, al igual que la nombrada inspectora, son descritos con un hábil boceto de punta fina, que, sin necesidad de mayores detalles, representa perfiles de personas que reconoceríamos fácilmente en el mundo cotidiano. Máximo teniendo en cuenta que la acción discurre entre los callejones de Jaca, las extensas laderas del monte Collarada desplegadas sobre el valle del Aragón, e incluso, alcanza las elitistas moradas de las clases más acomodadas de la gran urbe bilbaína.
Por tanto, suculenta obra de **Txemi Parra**, la segunda de su dedicación literaria, que se digiere con una ligereza muy de agradecer. Dos últimos apuntes. Si alguien pretende desvelarnos el final con antelación, con ese odioso ánimo de pulverizar la intriga creada, le va a resultar complejo de explicar. Y, además, habida cuenta de su ambientación invernal, es una lectura muy refrescante para las estaciones venideras con sus calores.




**SOLO QUEDA SILENCIO**
Txemi Parra
GRIJALBO

## Profila ITXAROPENA INPRIMATEGIA



**JESUS MARI OLAIZOLA *TXILIKU***
Idazlea

# ITXAROPENA

Mutikoa nintzenean, maiz, biderik luzeena hartzen nuen eskolatik etxera, Zarauzko kaleetatik bihurritzen zen bidea; nahiz eta luzeagoa izan atseginagoa egiten zitzaidan nire lagun gehienek hura hartzen zutelako. Gainera, bazen lantegi berezi bat ibilbide hartatik asko desbideratu gabe zegoena, eta nire jakin-mina pizten zuena. Sarrerako ateak irekita zituenean (sarritan, neguko hotza edo euri-eguna ez bazen) han kuxkuxean aritzeko aukera ematen zidan.
*Itxaropena* izena zuen lantegiak eta banekien hura ez zela beste lantegiak bezalakoa. Han ez zituzten engranajeak egiten, ezta mahaiak eta aulkiak ere, han liburuak egiten zituzten!
Txokoan, arasa handi batean pilatuta, berunezko letra-tipoak zeuden, bakoitza bere apaltxoan pilatuta, eta tipografoek, beren esku azkarrekin, aukeratu eta ahuspez jartzen zituzten zurezko kutxatxoetan orrialde inprimatua izango zenaren alderantzizko eredua osatuz. Hura miresgarria zen, sorginkeria, jakin bai bainekien kutxatxo hartako labirintoari tinta emanez gero irakurtzeko zerbait sortzen zela.
Geroztik behin baino gehiagotan egokitu zait inprenta hura bisitatu beharra, baita Zarauzko beste muturrean egin zuten lantegi berrira joan beharra ere, eta gustuko izan ditut haietako tintak usaintzea eta makinen triki-trakak entzutea, paper zuriaren gainean aldizkari eta liburuak sortzen ari ziren bitartean.
Bitarte horretan lantegiari gertatutako hainbat gauza ere etorri zaizkit burura: gerra ondorengo urte ilunetan euskaraz argitaratzeko konpromisoa, Kulixka sorta, entziklopedia argitaratzearen lan erraldoia…
Joan zen astean jakin dut itxi dutela, eta, barne-barnean, sentitu dut nirea zen zerbait galdu dudala. Ez naiz ni egokiena inori azaltzeko zer bide eta zer balio galdu ditugun *Itxaropena* galtzearekin. Baina badakit asko izan dela galdutakoa.



ARGAZKIA: JON URBE / FOKU

BARREN-BARRENEAN

# GIZONTASUN BERRI BAT, GIZATASUNA BEZAIN ZAHARRA



**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

Duela lau egun, euskal literaturaren sisteman matxismoa seinalatzen edo salatzen zuenari ikusten eta salatzen zuena ez zela existitzen esaten zitzaion. Arazorik ez zegoenez, ez zen aldaketarik behar. Azken urteotan, ostera, badirudi gauza batzuk aldatu direla gizartean -nahiz eta ez dagoen argi gauza horiek gizartea aldatzea lortu duten- eta ezin uka euskal literaturan ere aldaketak egon direnik. Zeintzuk diren, zenbat eta zenbateraino aldatu diren beste kontu bat litzateke, jakina, izan ere, niretzat susmagarria da atzo bertan arazoak ukatzen zituen sistema batek gaur arazo guzti horiek konponduta izatea. Eta beldur naiz sistema aldatu beharrean ez ote dugun aldarria aldatu. Alegia, lehen “gu ez gara matxistak” esaten zen moduan, esaten dugula orain “gu feministak gara”, eta horrekin denok konforme. Baina aldarrikapen feministak ez dira aldarriekin asebetetzen eta inporta duena ez da esaten duguna, egiten duguna baizik.

Sistema literario honetan ze tratu ematen diogun elkarri, ze tratu ematen diogun gizarteari eta, bereziki, ze literatura egiten dugun. Hori da kontua. Izan ere, idazle batek esan dezake feminista dela ahotsa galdu arte eta, era berean, portatu daiteke oso modu patriarkalean, eta egin dezake oso literatura misoginoa. Eta alderantziz. Idazle batek pasa dezake bere ibilbide osoa behin ere feminista dela aldarrikatu gabe eta egin dezake feminismoarentzat ona den literatura bat, feministok geuretzat aldarrikatu dezakeguna, emakumeokin ona izan daitekeena eta gizonei on egin diezaiekeena.

Eta gizonei diot duela gutxi aurkikuntza bat egin nuelako. Gure literaturan, errepikatu egiten den kontakizun mota bat deskubritu nuen. Era honetako kontakizunak gizonek idatzitakoak izaten dira, eta gizon bat izaten dute protagonista. Gizon problematiko bat, gizonaren problema ilustratzen duena. Marmartia, mingostua, erresumindua. Ia beti zinikoa. Askotan, desesperatua. Izan daiteke dena dakien gizon bat, nor den eta zer gertatzen zaion izan ezik. Narrazioaren hasieran, gizon horrek bidaia bat egin behar izaten du, gotorleku bihurtu duen bere etxetik kanpora, eta apur bat obligatuta egin behar izaten duen bidaia horretan humanitatea agertzen zaio, moduren batera. Eta kanpoko bidaia bere baitarako bidaia bihurtzen da. Protagonistak aspaldi nor izan zen gogoratzen du, haurtzaroa agertzen zaio, bere mina ikusten du, aspaldi galdutako aberri batera itzultzen da. Bukaera oso hunkigarria izaten da, gizonkeriaren oskola kraskatu egiten delako eta oskolak itotzen zuen gizonaren gizatasuna agertzen delako. Eta gizon horren baitan aspaldi galdutzat ematen zituen sentimenduak. Esperantza, bere buruarekiko errukia, zoriona, mina. Une horretan, negar egiteko gogoa izaten du edo negar egiten du, eta nire moduko irakurleei behintzat negarra ateratzen digu.



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Orain arte, era honetako lau kontakizun deskubritu ditut. Eta neure bihotzaren indar guztiarekin gomendatu nahi dizkizuet. **Harkaitz Cano**ren *Zingiretan* (*Neguko zirkua*, Susa, 2005), **Xabier Mendiguren**en *Il viaggiatore pusillanime* (Argia, 2011), **Gotzon Garate**ren *Ipuina* (*Lehortean,* Gero, 1979) eta **Mikel Taberna**ren *Sakeleko harria*, Atarrabiako udalak 2008an saritua eta argitaratua. Azkena Deabruaren Eskola webgunean ere badago, eta Gotzon Garaterena webgune horretan bertan edo Armiarma.eus-en aurkituko duzue.

Denak dira kontakizun apartak, hunkigarriak, miresgarriak. Feminismoa, beste ezer baino lehen, humanismo bat dela frogatzen dutenak, aldaketa feministarentzat hain beharrezkoa den gizonaren transformazioaz hitz egiten digutenak, gizonkeriak gizonengan eragiten duen kaltea erakusten digutenak, gizontasunaren krisiari gizatasun zahar batekin eta gizontasun berri batekin erantzuten diotenak. Gizonek bere buruari ukatzen dioten mina ikusten laguntzen digutenak, gizonak humanizatzen dituztenak, eta denok, gizon eta emakume, humanoago egiten gaituztenak.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

# FRANCK DOLOSOR *HALTZA*

**Amerikarrak eta errusiarrak Alemaniako Reich-a erorarazteko borrokan ari ziren garaian, 1945ean, Okzitaniako lurmutur batean gotortutako nazien aurka borrokatu zen, banderatzat ikurrina hartuta, Gernika Batailoia. Haren historia ahanzturatik jaregin du Franck Dolosor *Haltza* kazetari eta idazleak.**

**Zerk bultzatu zaitu Gernika Batailoiaren historia kontatzera?**
Duela hamar urte euskal brigada honi buruzko dokumentalaren gidoilaria izan nintzen eta liburua film honen jarraipena da. Halere, geroztik beste bi gudari ezagutzeko ohorea izan dut eta beraz liburuan beren testigantzak, eta sekula agertu ez diren argazkiak eta agiriak gehitu ahal izan ditugu. Gainera, testuinguru osoa gehiago sakontzeko parada izan da Euskal Herri osoko egoera kontuan hartuz. Lana ikuspegi nazionalean oinarritzea garrantzitsua iduritzen zait gure nazioa zatituegia baita eta maiz gisa horretako lanetan ez baita egoera oso osoa kontuan hartzen.

**Zer bide jarraitu duzu liburua idazteko baliatu duzun dokumentazioa biltzeko?**
Maitasun handiz idatzia den liburu-omenaldi hau lau gudariren erretratuekin hasten da. Gero Mundu Bigarren gerraren bukaera kronologikoki aipatzean beren ekarpenak eta erreakzioak agertzen dira. Sanoak bezain umilak ziren.

> *“Gernika Batailoia aipatzea ez da bakarrik historiaz aritzea aktualitateaz baizik”*

**Gudari haiek ez zuten zegokien neurriko esker ona jaso. Zu ahanzturatik jaregiten duzu liburuan. Zer gehiago egin daiteke ildo horretan?**
Gernika Batailoiaren inguruan omenaldiak, ikerketak eta argitalpenak egin izan dira. Haatik, ikusiz bere garrantzia zein izan zen begi bistakoa da ahal den guztia egin behar dugula gehiago ezagutarazteko. Euskarri guztiak erabili behar ditugu erdal herrietan egin ohi duten bezala




**GERNIKA BATAILOIA. ASKATASUNAREN AMETSA**
FRANCK DOLOSOR *HALTZA*
PAMIELA

**Liburuan kontatzen dituzun pasadizo eta istorio asko fikzioa egiteko (nobelak, filmak, antzezlanak...) oinarri egokia izan daitezke.**
Arrunt, ez da dudarik. Erdal herriak eredugarriak ditugu sail horretan ere. Batasuna horren bidez lantzen dute ere. Bada garaia guk ere ikas dezagun. **Jose Antonio Agirre** lehendakariari buruzko filma eginen bagenu arrakastatsua izan liteke Euskal Herritik kanpo ere bere ibilbidean mezu unibertsal asko dago eta. Zuberoan, **Kepa Ordoki** Gernika Batailoiaren komandanteari buruzko pastorala antolatzeko asmoa dute orain. Sarako Idazleen Biltzarraren karietarat **Jean Bordaxar** Arrokiagako kantariak Ordokiri buruzko pastorala idazteko gogoa duela erran zidanean poza eta kasik negar malkoak atera zitzaizkidan. Hori da bidea.

**Jatorri eta oinarri ideologiko askotako jendea batu zuen Gernika Batailoiak. Ikasgai egokia izan daiteke hori gaur egungo garairako?**
Ez gaitezen nostalgikoak edo erromantikoak izan baina, frankistak salbu, denak zeuden Gernika Batailoian. Horrelako aniztasuna arras gutxitan ikusi da gure herriaren historian. Gainera, Gernika Batailoia aipatzea ez da bakarrik historiaz aritzea aktualitateaz baizik. Gogoetak egiteko parada eskaintzen digu, bereziki eskuin muturraren gorakada alde guzietan pairatzen dugularik Ipar Euskal Herrian ere zoritxarrez. Historia erabili behar dugu orainaldiaz eta etorkizunaz gozatzeko.

**JUAN LUIS ZABALA**
Idazlea

**Elkarrizketa osorik:**
**https://labur.eus/franckdolosor**



# JAVIER CERCAS

**_El loco de Dios en el fin del mundo_ es el resultado de un planteamiento insólito. Por primera vez, el Vaticano abre sus puertas a un escritor, elige a Javier Cercas, y le propone escribir un libro, el que sea, a partir de lo que viva dentro de la institución. Cercas acepta, con una condición: que le permitan estar unos minutos a solas con el papa, para poder preguntarle si su madre se reencontrará con su padre más allá de la muerte.**



FOTOGRAFÍA: RAÚL CERCAS




**EL LOCO DE DIOS EN EL FIN DEL MUNDO**
Javier Cercas
RANDOM HOUSE

**No puedo evitar arrancar con esta pregunta: ¿Cómo ha vivido la muerte del papa?**
Hablando sin parar de mi último libro, que acababa de publicarse y trata sobre el papa, la Iglesia, el cristianismo y el papel de la Iglesia y el cristianismo en un mundo como el nuestro, que parece haber desterrado a Dios y al cristianismo. Y digo parece porque, a juzgar por el revuelo universal armado, tampoco están tan desterrados, ¿no cree?

**¿Es verdad que nadie antes le había preguntado al papa Francisco por la resurrección de la carne y la vida eterna?**
Es lo que me decían en el Vaticano cuando llegué; y lo que sé una vez acabado el libro. Y es una paradoja descomunal, porque la resurrección de la carne y la vida eterna es el centro exacto del cristianismo; no lo digo yo, ni siquiera el papa Bergoglio; lo dice san Pablo, que en cierto modo se inventó el cristianismo. En cualquier caso, a mí ese asunto no me interesaba por motivos teológicos, sino personales, porque mi madre, que era profundamente católica, decía tras el fallecimiento de mi padre que ella iba a verlo después de la muerte, como le había prometido su religión. Y yo quise preguntarle al papa Francisco si eso era verdad, para escuchar su respuesta y para llevársela de vuelta a mi madre. De eso trata este libro: de una pregunta que podría hacer un niño. ¿Sabe? A mi edad yo ya he comprendido que

> *“A mi edad yo ya he comprendido que las preguntas esenciales son las que hacen los niños. Todo lo demás es irrelevante. O casi”.*

las preguntas esenciales son las que hacen los niños. Todo lo demás es irrelevante. O casi.

**¿Qué impresión causa el papa? Quiero decir de cerca… Él y todo su séquito. ¿Asustan, imponen?**
No. Son personas comunes y corrientes, algunas muy valiosas e inteligentes. Eso sí, desengáñese: el Vaticano no lo llevan tontos; si así fuera, la Iglesia no acumularía dos mil años de historia. Pero nada más. También el papa Francisco era una persona común y corriente, que antes que nada era un sacerdote, claro, aunque luego fuera muchísimas cosas más. Y muchísimo más complejas y enrevesadas, casi laberínticas. Desde luego, no era el personaje plano y edulcorado que difundían los medios de comunicación.

**En la novela confiesa que es escritor porque perdió la fe. ¿Sí?**
Totalmente. Lo cuento en el libro porque me parecía indispensable. A los catorce años, después de leer salvajemente a Unamuno, perdí la fe y -esto lo entendí mucho más tarde- busqué un sustituto en la literatura: empecé a leer ya no solo en busca de placer, sino también de conocimiento, traté de encontrar en la literatura las seguridades que hasta entonces me había proporcionado la fe. Por supuesto, era un error, porque la literatura -al menos, la literatura auténtica- no proporciona seguridades ni respuestas: proporciona más preguntas, más inquietud. Pero, cuando lo descubrí, ya era demasiado tarde.

**TERESA SALA**
Periodista

Elkarrizketa osorik:
https://labur.eus/javiercercas



# DIESEL

**Bertol Arrieta (Zarautz, 1975) narratzaile peto-petoa dugu. Orain arte argitaratu dituen liburu guztiak izan dira narrazio bilduma, eleberri edo nobela grafikoak. Aurkeztu berri duen ipuin liburua ere, *Diesel*, bere narratzaile talentuaren erakusgarri bikaina da.**

***Diesel* izena du zure ipuin libururik berrienak, Bertol, eta "diesel jendea" aurkituko du irakurleak bertan, hala definitu dituzu ipuinotako pertsonaiak. Baina nolakoa da "diesel jende" hori?**
"Reprise" handirik gabeko jendea da diesel jendea; bizitzari egunero astelehena balitz bezala begiratzen diona; bizitzera, ezinbestean, ohitu egin dena.

**Zazpi ipuin, zazpiak diferente, baina ez diete iskin egiten bizitzako gai, esan dezagun, handiei, literaturaren motore izan diren gaiei: bizitzaren konplexutasuna, heriotzaren absurdoa, giza-harremanen nahi eta ezina. Ez zara batere transzendente jartzen, ordea, are natural-natural egiten diezu aurre.**
Bai, eta alde horretatik ez dago tragedia handirik ipuinotan, ezpada eguneroko dramatxo txikiak, pertsona arruntok gure errutinan sufritzen ditugunak. Detaile txiki eta itxuraz intranszendenteetan laburbiltzen dira bizitzaren konplexutasuna eta heriotzaren absurdoa, nire ustez. Inoiz ez zaizkit gehiegi gustatu xantaia emozionala egiten duten liburu horiek.

**Nabarmentzeko modukoa da ipuinok zeharkatzen dituen umore fina, ez barre algara sortzen duena, baina bai irribarrearekin irakurtzera eramaten zaituena. Nola lortzen da hori?**
Ez dakit ondo nik neuk ere, nahi gabe ateratzen baitzait. Baina uste dut hondo-hondoan badela norbere buruari barre egiteko irrika bat, norbere burua irrigarri utzi nahi bat, eta horrekin batera gure tankerako adin ertaineko gizonak, oro har.

**ARITZ GALARRAGA**
Idazlea




**DIESEL**
Bertol Arrieta
ALBERDANIA

# LUR JOTA PARISEN ETA LONDRESEN




**LUR JOTA PARISEN ETA LONDRESEN**
Geroge Orwell
IGELA

Filologia Ingelesa ikasten ari zela irakurri zuen itzultzaileak **George Orwell**en *Down and Out in Paris and London*. Orduko gazte hari, Franco hil berriko testuinguruan, zirrara handia eragin zion liburuak. Ez zen nobela bat, miseriaren egunkari moduko bat baizik. Ordutik gorde zuen euskarara ekartzeko gogoa.

Itzulpen lanari urte batzuk geroago ekin zion, patxadaz eta tarteka, artean, gaztelaniazko bertsiorik ere ez zela. Gaur egun, Orwellen beste bi lan nagusi badaude euskaraz: *Abereen etxaldea* eta *1984*. Baina *Down and Out…*, ez. Itzulpenari *Lur jota Parisen eta Londresen* izenburua jarri dio, jatorrizkoaren esanahia hobeto jasotzen duelakoan: umiliazioa, autoestimu falta, gaixotasuna eta bazterketa dira bertan deskribatzen diren egoerak.

Liburu honen gaia zaharkitua edota iraganeko kontua dela pentsatu daiteke. Hurrengo belaunaldiak aurrekoak baino hobeto biziko direla ziurtzat jotzen zen oraintsu arte. Orwellek, ordea, ezer badauka, giza arazoen muineraino iristeko dohaina dauka: gizakion arimara iristeko sen profetikoa. Sen bikaina eta, halaber, zorigaiztokoa. *Lur jota Parisen eta Londresen* liburuan deskribatzen den miseria inguruan daukagu, ez da, tamalez, desagertu, berton daukagu: etxegabekoak, errefuxiatuak, langabetuak…, arrazoiak arrazoi, ahaztuak eta baztertuak. Orwellek Iraultza Sobietarraren estalinismo totalitarioa aurreikusi zuen *Abereen Etxaldea*n, eta *1984*an profetizatu zuen munduan egunean baino egunean gertuago daukagun gizarte *teknofaxista*.

Itzultzean, kaleko hizkera euskaratzeko erronka izan du itzultzaileak: pertsonaia bakoitzari erregistro egokia ezartzea, euren jatorria eta maila soziala islatzeko. Ingeles soil bezain jorian idatzi zuen Orwellek, baina pertsonaien dialogoak eskale etxegabekoen kaleko hizkeran idatzi zituen.

Itzulpen honekin irakurle euskaldunari ekarri nahi zaio Orwellen literatur lana eta mezua. Ia ehun urte pasatu arren, inguruan daukagun errealitatea delako Orwellek hain bikain deskribatu zuen gizartea.





# ALAITZ LECEAGA

FOTOGRAFÍA: PLANETA

**Alaitz Leceaga (Bilbao, 1982) se convirtió en una autora superventas tras publicar *El bosque sabe tu nombre* (2018), *Las hijas de la tierra* (2019) y *Hasta donde termina el mar* (2021). Su nueva novela, *La última princesa*, transcurre en Lemoiz (Bizkaia) en los turbulentos años 90, de donde es originaria y a donde regresa Nora Cortázar, una obsesiva investigadora de Interpol cuyo padre está preso y cuya madre acaba de fallecer.**

**Ambientas esta novela en los años 90, en torno a la central nuclear de Lemoiz. Es un punto de partida que puede sorprender a sus lectores, dada su carga política, ¿no?**
En absoluto: mis historias siempre están ambientadas en épocas anteriores, aunque esta novela transcurre en un momento más cercano en el tiempo y algunos lectores puede que incluso lo hayan vivido en primera persona. A pesar de ser una novela negra, en *La última princesa* están presentes todos los elementos de habituales de mis historias, tan queridos por mis lectores.

**Aunque la línea principal tiene forma de thriller, con su brutal asesino, de fondo aparecen temas como la violencia política y los abusos policiales. ¿No tuvo miedo de meterse en ese jardín?**
No especialmente. Algunos de los puntos fuertes de mis novelas son las localizaciones y la ambientación, considero que esos dos elementos enriquecen mucho las historias. En esta novela, la ambientación toma forma en la compleja realidad que se vivía en Euskadi en los años 90, y la localización son los espectaculares paisajes de la costa y los bosques, casi como un personaje más. Sobre todo, *La última princesa* es un thriller con elementos mitológicos: el regreso de la protagonista al pueblo de su infancia para asistir al funeral de su madre coincide con el hallazgo de un cadáver y la siguiente investigación policial contrarreloj para encontrar al asesino.

**En la trama aparece la figura del delator o chivato, en varios personajes. ¿Quería, de alguna manera, invitar a la reflexión sobre este tema?**




**LA ÚLTIMA PRINCESA**
Alaitz Leceaga
PLANETA

Aparece y además es fundamental para la trama. Creo que en la novela negra o policíaca, este tipo de personajes nos sirven para hacernos reflexionar sobre los límites de la lealtad. ¿Qué estamos dispuestos a hacer? ¿Qué secretos vamos a revelar? Es una idea que me resulta muy interesante.

**El thriller se ve salpicado pronto por elementos fantásticos que se relacionan con la mitología vasca. Es un tema recurrente en su obra.**
Los elementos mitológicos combinan muy bien con el thriller y la novela negra. Me gusta añadirlos a mis historias porque me atrae indagar en la oscuridad del ser humano.

**¿Cómo es Nora Cortázar, la protagonista de esta novela?**
Nora Cortázar es jefa del departamento de Ciencias del Comportamiento de Interpol, también es hija de un famoso asesino. Es obsesiva, analítica y tiene una memoria extraordinaria. Nora es una investigadora única, con una capacidad especial para comprender el mal; estoy deseando que los lectores la conozcan.

**Recupera la figura del monstruo, tan tratado en los cuentos clásicos. ¿Qué forma tienen los monstruos en la actualidad?**
Los monstruos en nuestra época pueden tener muchas formas, algunas incluso parecen inofensivas.

**KAROLINA ALMAGIA**
Periodista



# ANE ELGEZABAL

**Bere lehen liburua kaleratu du Ane Elgezabal Odriozolak (Gernika-Lumo, 1996): *Haizearen erpeak*, bere amaren bizitzaren bidez garai bateko bizimodu latza erakusten diguna: baserri txiroa, ugazaba zekenak, guardia zibil odolgoseak… Oroitzapen-sorta aldi berean gogor eta goxoa.**

**Lehenbiziko liburua duzu. Zergatik orain?**
Pandemiaren egoera ez zen samurra izan, eta nolabaiteko ziztada eragin zidan neure amaren biziari buruz ezer ez jakiteak. Egunean-egunean hurreratzen nintzen harengana konturen bat edo beste entzuteko. Koadernotxoa betetzea joko moduan hartu nuen, eta horrela sortu zen liburua.

**Gaia aski berezi eta ezohikoa da, ezta?**
Bai. Guk, gazteok, horrelako bizipenik ez dugu ia entzun ere egin, eta kikara bete bizipen izan nahi nuen hain hurbilekoa den pertsona batengandik, berez hain aspaldikoa ez den sasoi batekoa gainera.

**Garai hura irudikatzeko, amaren hitzak izan dituzu iturri bakarra, ala beste norabait ere jo duzu?**
Amaren berbak dira gehienak, ondoren nire eginak, baina familiako beste senideengana ere gerturatu izan naiz informazio gehiagoren bila, eta baita beste kide batzuengana ere: bai eszenak hobeto irudikatzeko, bai beraiek bizi izandakoa iturri gisa erabiltzeko…

**Saiakera bat da, nolabait, baina pasadizoak kontatzen zabiltza, ipuinak balira bezala…**
Bai. Berez, pasadizo bakoitza erronka bat legez irudikatzea da ideia, gainditutako erronka bat. Beharrezko datuez baino ez dut irakurlea janzten, inguruko guztiak isilduz.

**Eta, aldi berean, idazkerak asko du poetikotik.**
Nik idazten dudana ukitu poetikoz koloreztatzean hartzen dut gozamena, hori da gehien gustatzen zaidana, batez ere, istorioa irakurlearen barrenera orduantxe sartzen dela iruditzen zaidalako.



**HAIZEAREN ERPEAK**
Ane Elgezabal
ELKAR

**Gogorrak eta mingarriak dira kontatzen dituzunak. Gertaera alai eta goxorik ez zegoelako, ala nahita utzi dituzu alde batera?**
Nahita eman gura izan diot iluntasun hori kontakizunari, hain zuzen ere, ni gehien hunkitu nauten istorioak horiexek izan direlako eta eragin bera bizitzea gura dudalako irakurleek.

**TERESA LARREA**
kazetaria



**OLATUAK SUTZEN DIRENEAN**
Haritz Larrañaga
TXALAPARTA

# HARITZ LARRAÑAGA

***Olatuak sutzen direnean* Haritz Larrañagaren lehen eleberria da. Autobiografiari fikzio ukituak emanez Euskal Herriko historia hurbila gogoratzeko memoria ariketa egin du askatasunaren bila ari diren bi anaiaren kontakizuna harilkatuz.**

**Zarautz. 80. hamarkadaren hasiera. Bi ume: Lizar eta Imanol. Postal ederraren atzean, bestelako herria bizi izan zuten bi anaiek. Hutsune bat betetzera al dator liburua?**
Gauzak nola gogoratzen ditudan azaldu nahi izan dut, ez baitute bertsio ofizialarekin ikustekorik; bizi izan genuena nola oroitu behar dugun inposatu nahi digute euren erantzukizuna onartzeko gai ez direnek. Uste dut geure historia geuk bizi izan dugun moduan kontatzeko eskubidea eta betebeharra dugula. Bestela, herri honen historiaren zati handi bat gu desagertzearekin batera desagertuko da; isilik dagoena ez baita existitzen.

**Askatasunari buruz hitz egiten duzu: askatasun indibidualak, kolektiboak eta askatasunik ezak zipriztintzen dute kontakizuna.**
Askatasuna hitz potoloa da eta norberak izan dituen bizipenen arabera irudikatzen du. Oso desberdinak diren pertsonaiek askatasuna nola uler dezaketen azaltzen saiatu naiz.

**Anaien arteko maitasunak ere liburua zeharkatzen du.**
Anaien arteko maitasunarena nahi gabe atera zait. Euskaldunok balio batzuk oso errotuak ditugu eta horietako asko kristauak dira: familiaren garrantzia, esate baterako. Balio horiei esker komunitate indartsua osatu dugu. 80ko hamarkadan heroinak egin zuen triskantzaz hitz egin ohi da, adibidez, eta balio horiei esker izan ez balitz, heroinazale askok ez zuketen halako laguntzarik jasoko familiaren eta lagunen aldetik. Balio horien aldeko aldarria egiten dut uste dudalako, zoritxarrez, horiek ere galtzen ari garela.

**OLATZ LASAGABASTER**
Kazetaria

**Gariri elkarrizketa hemen:**
**https://labur.eus/haritzlarranaga**



# MIREN AGUR MEABE

**Proposamen diferente bat egin dio Miren Agur Meabek (Lekeitio, 1962) irakurleari *Amorante frantsesa* bere lan berriarekin, poemaz poema eraiki baitu thriller ukituak ere badituen nobela.**



ARGAZKIA: ELKAR



**AMORANTE FRANTSESA**
Miren Agur Meabe
SUSA

**Zer eman dio forma horrek kontatu nahi izan duzun istorioari?**
Irakurketa-errutinak hausteko aukera, eta narrazioari bizkortasuna. Ohiko nobelak ganaduaren pausoan mugitzen dira, tartean hausnar eginez, tartean planto. Forma honek, aldiz, erbiaren ibilkeraren antza dauka, saltoka, batzuetan erdi ezkutaketan, arrastoa ere galtzeko moduan. Testuak paperean duen banaketa grafikoak ere arindu egiten du istorioan sartu eta geratzeko ahalegina.

**Agurtzane da kontakizuneko ardatza: 60 urte, ikastetxe bateko atezaina, basoan bizi da. Badirudi bigarren planoan geratzea tokatuko litzaiokeela, baina, kontrara, agentzia hartzen ikusten dugu, bai Irati Berazaren hilketaren kasuan eta baita bere irrika sexualari dagokionean ere.**
Nortasun gogorrekoa da; bihotz onekoa, kontraesanak dituena. Bilakabidea ere izango du: ahizpa gaixoarekiko inplikazioan, adibidez. Bakardadeari buruzko ikuspegi bat ematen digu: bere bizitzaren aldi horretan zergatik ematen dion balioa bizi den moduan eta bizi den tokian bizitzeari. Emakume autonomoa da, estereotipo klasikoetan sartzen ez dena. Gero eta gehiago daude horrelakoak, baina ez dugu oraindik haiei buruz zabal idatzi.

**Eta thriller ukituena? Esploratzeke zenuen zerbait zen?**
Ez dut neure burua ikusten nobela beltza idazten. Hemen suspensea edo misterioa dosi txikietan datoz eta, zintzoa izanda, uste dut nire eskuetara **Dorothy Porter**ren *La máscara del mono* liburua heldu ordez biografia bat edo amodio istorio bat iritsi izan balitz, seguruenik beste ildo horietatik helduko niola nire lanari.

> “Divertimento serio bat izan da”

**Misterioarekin batera, kontakizunaren parte sentsoriala ere nabarmentzekoa da.**
Nire liburu guztietan dago oso presente gorputza, baina ez soilik erotismoaren ikuspuntutik: amatasuna, gaixotasuna, menopausia, heriotza eta abar ere hor dira. Zentzumenen bidez eratzen ditugu harremanak munduarekin eta haiek eskaintzen dizkigute bizirik gaudela sentiarazten diguten estimuluak. Zentzu zabal horretan nabari da sentsorialtasuna liburuan: txoriak, animaliak, paisaiak, janari-edariak…

**Izenburua, aldiz, nahiko berandu datorren amorante frantsesari zor dio liburuak.**
Pertsonaia sekundario samarra da, baina *lehen* bat eta *gero* bat markatuko ditu Agurtzeneren bizitzan, hark bezala, bakardade aukeratuaren zentzuaz jabetua den norbait delako. Espero zuen maite-laguna da, aitortuko ez lukeen arren.

**Diane Wakoski poetaren *Esperando al rey de España* liburuaren oihartzunak ere biltzen du liburua. Zein izan da asmoa harekin?**
**Eduardo Moga**ren bidez ezagutu nuen, eta inarrosi egin ninduen intertestualitate puntu bat zuelako nire literaturarekin eta, beraz, nire bizitzarekin —M izeneko gizon bati buruz ari da bere poemetan, ni *Kristalezko begi bat* nobelan bezala—. Horregatik, **Wakoski**ren pasarteak zehar-lerro estetiko eta emozional sotila baina berebizikoa bihurtu dira.

**Liburu berri bakoitzak behar luke koska bat zurea moduko obra oparoko egileentzat. Zer eman dizu azken honen idazketak?**
Divertimento serio bat izan da. Ariketa sakona izan arren, baditu jolas egiteko bokazioa, umorea eta desinhibizioa ere. Ez dut introspekziotik idatzi eta balio izan dit ikasteko poesia pantomima ondradu bat ere izan daitekeela.

**ITZIAR UGARTE**
Kazetaria



# EL CÁRTEL VASCO

***El cártel vasco*, de Hermelo Molero, relata la llegada de Jairo, un narco colombiano que huye de su país natal tras recibir amenazas de muerte. Instalado bajo la protección de Don Manuel, un capo veterano de métodos implacables, Jairo aspira a fundar su propio cártel, aunque pronto deberá confrontar la realidad de asociarse con alguien cuyos escrúpulos distan de los suyos.**

La Ertzaintza de Bilbao, liderada por Javier Navarro y su grupo antidroga, despliega una investigación destinada a desmantelar las aspiraciones del recién llegado. A lo largo de la trama, los agentes sortean obstáculos como la inercia burocrática, el temor generado por la violencia narco y, en un giro extraordinario, el impacto de una pandemia global que paraliza buena parte de las operaciones policiales y criminales.

La novela entrelaza secuestros, asesinatos y traiciones, presentados con un ritmo ágil que combina escenas de intensidad sostenida y episodios de aparente calma. Molero, autor con experiencia en el ámbito policial, fundamenta los hechos en datos y procedimientos reales, lo que dota al relato de un carácter verosímil. El contraste entre momentos de humor negro y estallidos de violencia refuerza la tensión narrativa y mantiene al lector en constante expectación.

El desenlace, inesperado y lejos de cualquier fórmula predecible, cierra la historia con un giro que cuestiona la línea entre la ficción y la realidad de los cárteles contemporáneos. Con un estilo directo y sin concesiones, *El cártel vasco* ofrece una mirada cruda y documentada al mundo del narcotráfico, apoyada en la credibilidad que aporta el conocimiento de sus protagonistas y contextos.

El autor, Hermelo Molero, no habla de oídas sino que conoce bien la temática, dado que forma parte del grupo antidroga de la Ertzaintza destinado en la capital vizcaína, del que ha llegado a ser máximo responsable.




**EL CÁRTEL VASCO**
Hermelo Molero
BAO BILBAO EDICIONES

# SALTSA NOSTRA

**SALTSA NOSTRA. EN LAS ENTRAÑAS DE LOS SANTOS JUANES**
Sergio Ortiz de Zarate
TARISKO




**SALTSA NOSTRA. DONE JOANESEN ERRAIETAN**
Sergio Ortiz de Zarate
TARISKO

## Lehenengo sukaldaritza-komikiak Michelin izardun sukaldari bat du protagonista

*Saltsa Nostra* ez da besteak bezalako sukaldaritza-liburua. Izan, hamahiru liburuko bilduma bateko lehenengo alea da. Eta bilduma horretako aleek, zinez, ez daukate aurrekaririk, gastronomia, arte grafikoa eta nobela beltza uztartzen dituzte eta.

Hau ez da errezeta hutsak edo jakinbide hotzak bildu dituen liburua, istorio bizi-bizia eta ikusgarria baizik. Isilpean, sukaldari elkarte batek elikadura industria handiaren mehatxuei aurre egiteari ekin dio. Lehenengo ale honen buru Sergio Ortiz de Zarate bilbotar sukaldaria dator. Michelin izarduna da eta berak gidatuko gaitu Bilboko Joane Santuen elizako barrunbeetara doan kontakizun baten barrena, Bizkaiko hiriburuko paraje eta giroetan murgilduz.

*Saltsa Nostra* no es un libro de cocina cualquiera. Es el primer volumen de una colección de trece títulos que rompen con todo lo establecido, mezclando gastronomía, arte gráfico y novela negra. Aquí no encontrarás recetas sueltas ni instrucciones frías, sino una historia intensa y visual protagonizada por una sociedad secreta de cocineros que lucha en la sombra contra las amenazas de la gran industria alimentaria.



# XABIER MENDIGUREN

**Nobela berri batekin datorkigu Xabier Mendiguren Elizegi (Beasain, 1964): *Borrero txiki bat*, guardia zibil baten semea duena protagonista eta egilearen obran aurrekariak badituena.**



ARGAZKIA: ALAINE AGIRRE

**Ez da polizia baten umearen azalean jartzen zaren lehenbiziko aldia, ezta?**
Egia. Ahaztu samarra nuen, baina duela mende laurden atera nuen *Txakurraren alaba*. Hura, baina, gazteentzako liburu bat zen, eta bestelakoa zen giroa, artean armak sutan.

**Liburuak ez du umorea ments; hala ere, siniestroa du oinarria: Intxaurrondoko ohitura jakin bat behin eta berriro igotzen da azpimundu ilunetik eguneroko bizitzako oroimenera.**
Halako kontuen inguruan ikerketan nenbilela azaldu zitzaidan delako ohitura hori, ni neu inpaktatu ninduena eta guztiz ezezaguna zela konturatu nintzena. Horregatik erabaki nuen hor bazegoela liburu baterako gaia.

**Gertakari hori hainbat perspektibatatik kontatzen da, eta nobelaren erritmoa markatzen du, sinfonia bateko baxuak bezala.**
Perspektiba aldaketak eta gidoiaren jiroak inportanteak ziren niretzat, irakurlea ezustean harrapatzeko eta liburuaren interesa mantentzeko. Baina egia da, halaber, hortxe dagoela uneoro, dun-dun-dun eginez.

**Jaengo Linaresen jaio ziren Ivan protagonistaren gurasoak.**
Aliritzira hautatu nuen sorterria: ez herrixka ezezagun bat, ez probintziako hiriburua, baizik hiri koxkor bat. Idazten ari nintzela, gogoratu nintzen hangoa zela Raphael abeslaria, eta xehetasun hori ere erabilgarria iruditu zitzaidan.

**Pintzelkada gutxi batzuekin, oso modu sinesgarrian pintatu dituzu hainbat bilakaera: Ivan, gurasoak, Gorka etakidea, euskal jendartea…**
Eskertzen dizut hala iruditu bazaizu. Horretan saiatu ohi da idazlea.

**Etorkizuneko elkarbizitzari nobelak ez dio begiratzen hain popularra izaten den ikuspuntu ezkor negartiz, ezta behako baikor beti-politaz ere.**
Ez da erdibide epelak maite ditudala; modu bat da esateko geroa beti dela ikuskizun, eta, batez ere, guk egiten dugula, bakoitzak bere aletxoarekin.





**BORRERO TXIKI BAT**
Xabier Mendiguren
ELKAR

**Kontagaia aukeratzeko orduan, beti erakarri zaitu iragan hurbilak, ezta?**
Baietz esango nuke, baina inkontzientea izaten da prozesua neurri handi batean. Hau da, ez da hainbeste hotzean jartzen naizela paper baten aurrean, zertaz idatziko dudan pentsatzen, baizik gai, giro eta gertakari batzuk oharkabean bezala datozkidala gogora, eta ezin utzi alde batera.

**Estuki lotua izaten da kontakizuna zeuk zuzenean bizi izandako gatazka historikoekin, gertatzen ari zirelarik ulergaitzak zitzaizkizunak. Zein neurritan da garrantzitsua zure obran ulertu nahia?**
Ez dut horrela planteatzen, baina seguru asko nire barruko motor bat gizakiak eta gertaerak konprenitu nahia izango da. Eta bizi izandakoaren arrasto bat gordetzea, eta haren lilura transmititzen saiatzea, eta kezka batzuk konpartitzea.

**Fikzioak eskain al diezaioke zerbait ulermenari, historia objektiboari harrapagaitz zaiona?**
Ez dakit zer, baina zerbait egongo da; azken batean gizon-emakumeok istorioen kontalari eta entzule gara, kobazuloen garaietatik egungo plataformetara, eta hala segituko dugula dirudi.

**MARKOS ZAPIAIN**
Filosofoa



# GARI, 30 URTE

**Hogeita hamar urte dira Garik bere bakarkako ibilbideari ekin ziola, *Gari* diskoarekin. Urteurrena baliatu du oso proiektu berezia gauzatzeko: diskoa zaharberritu du, ahotsak berriro grabatuz eta zenbait ukitu erantsiz jatorrizko abestiei. Emaitza, tirada mugatuko biniloan bakarrik entzun daiteke.**

1995ean mundua, Euskal Herria eta musikagintza oso desberdinak ziren, oraingoen aldean. Eta desberdina zen, oso, Gari. Hertzainak talde mitikoa urte bi lehenago desegin zen eta bere arima bietako batek, ahotsak, kinka pertsonal zail baten erdian, bakarkako ibilbideari ekitea erabaki zuen.

Emaitza *Gari* diskoa izan zen, bere musikari karrerari norabidea ezarri zion mugarria eta gure soinu-imajinarioari *Amets* gisako kantu ederrak erantsi zizkiona. Bernardo Atxaga (*Egun finlandiar bat*), Edorta Jimenez (*Astiro eta amorruz*) edo Jon Maia (*Apar urrunak*) idazleen testuak dira abesti batzuetako iturburua. Beste batzuek, berriz, *Amets* berak esate baterako, Garirena dute musika eta hitza.

Hogeita hamar urte geroago, ibilbide luze eta emankor baten ostean eta urteurrenaren aitzakian, Gari urruneko abiapuntu hari begira paratu da. Eta berriz ere kaleratzeko apustua egin du. Orduan ez bezala, orain biniloan argitaratu du, biniloan bakarrik gainera. Baina, batez ere, garai hartako doinuei bere oraingo kantaera itsatsi nahi izan die abeslariak, gaur egun darabilen patxada eta tonu grabeagoak egokiagoak direlakoan.

Horrez gain, Miguel Moyanok gitarra gehitu dio zeinbat kantari. Gainerako guztia, berriz, jatorrizko grabazioari dagokio; alegia, Aitor Ariñok 1995ean Berrizko Lorentzo Records estudioetan egin zuen grabazio hari, Mikel Irazokirekin (baxua, ahotsak eta teklatua), Fran Iturberekin



**GARI 30 URTE**
Gari
ELKAR

(gitarra) eta Víctor Celadarekin (bateria). Edizio berriaren nahasketak eta masterra Víctor Sánchezek egin ditu, Adunako Elkar estudioetan.

Zaharberrituta datoz, beraz, Gari biak, Gari abeslaria eta *Gari* diskoa, garai bateko gutiziak berriz ere entzungarri jartzeko asmoz.

**Gariri elkarrizketa hemen:**
**https://labur.eus/gari_elkarrizketa**

# XABI SOLANOREN *INPERNUKO*



**INPERNUKO**
Xabi Solano
ELKAR

**Xabi Solano trikitilariak *Inpernuko* izeneko biniloa kaleratu du, bere musika ibilbide luzeko gorengo uneak jasotzeko asmoz. Bakarka eta, batez ere, taldean egindako lanak bildu ditu, baina aukeraketa horri orain arte argitaratu gabeko doinu bi ere erantsi dizkio.**

Otsailaren 1ean Bilbao Arena kiroldegian, milaka lagunen aurrean eta adiskideen babesean, sekulako kontzertua ondu ondoren, Esne Beltzak bukatutzat jo zuen hamazortzi urteko ibilbide oparoa. Baina Xabi Solano ez da horregatik oholtzetatik jaitsi, inondik inora. Buru-belarri dabil Fermin Muguruzaren 40. urteurrenaren nazioarteko biran. Eta, hala eta guztiz ere, binilo zoragarri hau osatzeko tartea aurkitu du.

*Inpernuko* jarri dio izenburu eta, zer esanik ez dago, antzinako apaizek infernuko hauspotzat hartu zuten eskusoinu txikia da protagonista. Izen bateko abestiak dioen bezala, "inpernuko hauspoa, zerutako zorion". Zorion horren bila, Xabi Solanok bere ibilbideko puntako uneak bildu ditu binilo honetan. Hor dira, besteak beste, *Esne Zopak*, Esne Beltzaren *Gora* eta *Bi*, edo bakarka grabatu zituen *Ereñotzu* diskoetatik berreskuratutako piezak. Gainera, argitaratu gabeko doinu bi ere gehitu dio biniloari. Alde batetik, *Zirrara konpartitu bat* eta, bestetik, *Dantza zati bat*. Azken pieza hori Jon Maiaren *Gazta zati bat* dokumentalerako sortu zuen Solanok.

Hernaniko musikariak trikitia oinarri hartuta musika estilo askori heldu dio bere karreran eta horiek diskoan zehar ageri dira, Euskal Herritik mundu zabalari begira osatutako doinu sorta eder horretan islaturik. Bere trikiti doinu onenak dira, horrelakorik esatea nahikoa zaila bada ere, zerrenda luzea egin baitaiteke Xabi Solanoren abesti gogoangarriekin. Hori bai, *Inpernuko* biniloan baino ez da argitaratuko (LP), bestelako bideak bazter utzita.

**Solanori elkarrizketa hemen:**
**https://labur.eus/solano**



elkar fundazioa

# 2025eko elkar sariak, Zenbat Gara eta Kanalduderentzat

2016tik, urtero, udaberrian Elkar Fundazioak bere sariak banatzen ditu. 2025an bi sari banatu dira, Ibilbideari elkar saria, urtero banatzen dena kolektibo bati taldean egindako lana saritzeko ematen dena, eta Proiektuari elkar saria, martxan jarriko den edo abia den proiektu bat laguntzeko dena, bi urtetik behin.

Ibilbideari elkar saria Bilboko Zenbat Gara elkarteak jaso du. 1990eko hamarkadatik aurrera egindako lana balioan jarri eta hura errekonozitzeko asmoz emandako saria izan da, urteotan guztietan egindako lanak ekarpen handia egin diolako euskarari eta euskal kulturari, ez bakarrik Bilbon, nazio mailan ere bai.

Zenbat Gara elkartearen jardunak, bere ekimenen bidez eta bere programazioaren bidez, euskara ikasteko bideak jartzearekin batera, euskaraz bizitzeko eta euskal kulturan murgiltzeko aukerak zabaltzen ditu.



ARGAZKIA: ELKAR

## Euskaltegitik sortua

Bilbotarrak euskalduntzen urteak zeramatzan Gabriel Aresti euskaltegiaren inguruan eratu zen Zenbat Gara elkartea 1990eko hamarkada hasieran eta 1995ean sortu zuten Kafe Antzokia, nazio mailan ezagunena den proiektua. Euskaltegiarekin eta Kafe Antzokiarekin batera joan dira eratzen Bilbo Hiria irratia, Algara konpartsa, Erroa argitaletxea eta haur eta gazteentzako Kurkuluxetan eta Gazteola ekimenak, behinenak aipatzearren.

Euskaltegiaz harago, euskalduntzeari Bilbon falta zitzaiona bilatzea izan zen Zenbat Gararen abiaburua, euskaraz, modu naturalean harremantzeko guneak eta uneak sortzea. Ondoren, oinarri soziolinguistiko sendoez hornituta, helburu handiagoak etorri ziren: Bilbon bizi den euskal komunitatea bildu eta trinkotzea, ikasleak eta ikasitakoak hiztun guztiak hiztun aktiboak eta euskal sorkuntzaren hartzaile eta eragileak bihurtzea.

Ekarpen hori guztia saritzea erabaki du elkar Fundazioak, eta horregatik eman dio 2025eko Ibilbideari elkar saria. Gotzon Huegunek egindako eskultura jaso du Zenbat Gara elkarteak.

Zenbat gara elkartekoek (Eider del Canto eta Eider Cortezón), sariaren berri emandakoan eskerrak eman dituzte eta gogoratu dute azken 30 urteetan gizartea aldatu dela baina egoera linguistikoa ez dela asko aldatu. Azaldu dutenez Zenbat Gara elkartea gaur ere beharrezkoa da, euskararen alde ari den beste hainbat elkarte bezala, euskaldun gehien dituen hirian euskaraz leku handiagoa izan dezan, eta horretarako lanena jarraituko dutela euskaldunak elkartu eta saretzeko asmoz.

## Kanaldude telebista

Kanaldude telebistak jasotako sariak beste izaera bat du. Haiek egindako ibilbidea ere bada saritzekoa, baina kasu horretan Proiektua elkar sariaren bidez haien egitasmoa garatzen jarraitzeko eta erronka berriei eusteko 10.000 euroko laguntza jaso dute.

1997an sortu zen Aldude ibarrean tokiko telebista gisa, eta ordutik ibilbide luzea egin du. Gaur egun telebista zabala da Iparraldean hedatua eta Internet bidez edonon ikus daitekeena; hainbat operadoreren eskaintzaren bidez ere zabaltzen dute seinalea. 2010. urtetik, Aldudarrak Bideo Interes Kolektiboko Sozietate Kooperatiba bilakatu zen gerora (IKSK), eta kooperatibak 29 bazkide fisiko edo juridiko ditu, telebista proiektuko parte-hartzaile gehienen ordezkari direnak. Hamar dira bertan lanean ari diren langileak.

Urtez urte, euskarazko telebista eskaintza ingurura zabaltzeko helburuarekin, etengabe joan da Kanaldude egokitzen momentuko aukerak eta beharrak kontuan hartuta eta, gaur egun, erreferentziazko telebista da Ipar Euskal Herriko euskaldunentzat, eta ezaguna Euskal Herri osokoarentzat. Bere proiektua sendotzen jarrai dezaten jaso dute saria.

Kanaldudeko ordezkariek (Pantxika Maitia eta Eki Pagola) eskertu dute jasotako saria eta adierazi dute euskarak Ipar Euskal Herrian duen egoera kontuan izanda, euskaraz ari direla lanean eta euskararentzat. Kanalduden herritarrekin batera egiten ari diren telebistaren berri ematearekin batera esku artean duten erronka nagusitako baten berri eman dute: Bidarrain zine eta ikus-entzunezkoen polo berri bat sortzeko lanean ari dira. Han eraikin berri bat izango da, non, besteak beste, Kanaldudek estudio berri izango duen.

Etorkizuna lantzen ari diren bi ekimen saritu dira beraz elkar sarien bidez.

# LOS 130 MEJORES RECORRIDOS EN BTT POR LOS PIRINEOS




**Robert Larrandaburu**, el autor, hace una declaración de principios en la primera línea: este libro es una invitación a compartir. Lógico, es obvio que los autores comparten con los lectores lo que escriben, en este caso 130 propuestas para realizar en BTT a lo largo de los Pirineos, desde el Atlántico hasta el Mediterráneo y por ambas vertientes.

Circularemos por senderos estrechos, pistas y carreteras de Euskal Herria, con subidas intensas pero breves, como la de Larhun; los valles de Ossau y Aspe, en el Bearn; Aragón, con sus altas cumbres y descensos vertiginosos; los terrenos desafiantes de los Altos Pirineos y el Luchonnais, como el puerto de Hautacam, paraíso para los ciclistas de montaña; los paisajes salvajes de Andorra y la Arièja; y los desniveles acusados de Catalunya aderezados con aroma mediterráneo, desde las alturas de Esterri d'Àneu hasta el Cap de Creus.

Pero lo cierto es que Robert Larrandaburu va más allá, porque lo que comparte en este libro no es solo una selección de propuestas, es una pasión desbordada por el territorio y por esta actividad sobre dos ruedas. Participamos de sus experiencias por esos senderos en los que tanto ha disfrutado, de la camaradería con sus compañeros de bici al descubrir rincones y paisajes, del encuentro con pastores y vecinos, con las montañas y el paisaje. Y lo hace con la prudencia y el respeto como bandera, consciente de que nuestro paso no debe molestar al ganado ni debemos dejar una huella más allá del sendero.

Ese amor por los Pirineos es evidente cuando describe los antiguos senderos por los que rueda, los pueblos

**LOS 130 MEJORES RECORRIDOS EN BTT DE LOS PIRINEOS**
Robert Larrandaburu
SUA EDIZIOAK

lonely planet
**Viaja diferente y explora sin límites** con Lonely Planet.
**¡Encuentra tu guía!**



abandonados en los que el eco de la historia pervive, aquellos plenos de vida por los que no podemos pasar sin tomar o comer algo en la terraza de un bar mientras charlamos con algún vecino.
Cada propuesta destila mil y un sensaciones, esfuerzo, sudor y polvo, pero también sorpresa, descubrimiento, y vistas excelentes. Volaremos por las crestas que se asoman sin miedo a desfiladeros y cortados; tendremos que adivinar en muchos tramos el sendero que los helechos y el paso del tiempo se empeñan sin éxito en borrar; y rodaremos a toda velocidad cuesta abajo por *singletracks* de vértigo. Porque la búsqueda de senderos estrechos para el descenso es una de las tónicas en todas las propuestas, ya que hay que divertirse, disfrutar al máximo y dar por terminada la jornada con el cuerpo molido, pero con una sensación de plenitud aderezada con una amplia sonrisa en el rostro.
Las propuestas están clasificadas como *all mountain / enduro*, exigen cierta formación técnica, por lo que no son aptas para principiantes. Sí podemos hacerlas con una bici eléctrica, aunque tengan en cuenta que hay tramos habrá que cargar con ella. Cada ruta cuenta con un recuadro de datos prácticos (distancia, tiempos, dificultad, tipo de terreno, nivel de dificultad…), un mapa, un perfil y un código QR para descargar el *track*, lo que ayudará al *betetista* a planificar la salida de manera adecuada.

## ROBERT LARRANDABURU, PASIÓN POR LAS ALTURAS

El autor es un apasionado por las montañas. Tal vez porque nació en los Pirineos, en Larraine [Larrau], pero el caso es que la naturaleza es su forma de vida, pues ejerce como guía de montaña y de BTT. Ha escalado picos en los Pirineos, Alpes, América del Sur y Asia. Ha formado parte de varias expediciones, algunas de las cuales le llevaron a la cima de tres ochomiles, incluido el Everest; y a un *sietemil* del que descendió con esquís.
Cuenta con un blog: vtt-montagnes-sierras.blogspot.com en el que ofrece nuevas descripciones y posibles cambios de estas rutas BTT, y espera, asimismo, que los lectores le hagan llegar sus anotaciones o informaciones para mantenerlas actualizadas.
Este libro también sale a la venta en francés: *Les 130 plus beaux parcours VTT des Pyrénées*. Con Sua Edizioak Larrandaburu ha publicado la guía montañera *Xiberoako Xendak* (2022).

**ARGIÑE AREITIO**
Editora

# NOBEDADEAK




**GOIAN ZERUA ETA BEHEAN LURRA**
Mikel Zabalza
SUA EDIZIOAK

Liburu honetan, Mikel Zabalzaren kordadaren parte izango gara, Alpeetara eta Patagoniara joango gara, munduko horma handietara, eta haien babesean egingo dugu lo, haizea eta elurra nagusi diren lekuetan.




**SENDEROS CLANDESTINOS**
Ricardo Hernani / José María Torres
SUA EDIZIOAK

Este libro se aventura por viejos senderos de Euskal Herria con veinte rutas clandestinas que sortearon la vigilancia de miqueletes, guardias civiles, gendarmes y ocupantes nazis.




**MI VIDA CONTRA EL VIENTO**
Reinhold Messner
DESNIVEL

Reinhold Messner siempre ha tenido el viento en contra, ya sea en las montañas o en travesías sobre el hielo de la Antártida. Pero es a su regreso al mundo civilizado cuando Messner se encuentra con los mayores obstáculos.




**ROMA 7 DE CERCA (LONELY PLANET)**
Duncan Garwood / Virginia Digaetano
GEOPLANETA

Descubre las experiencias imprescindibles de Roma, sus sorpresas y sus lugares de interés más populares. Sumérgete en la embriagadora mezcla de ruinas, arte y vida callejera de la apasionada capital de Italia.




**ISLAS FEROE**
Txerra Cirbian
ECOS

Repletas de praderas verdes, con montañas abruptas y agua desplomándose desde ellas, las islas Feroe son un pequeño paraíso para los amantes de la naturaleza, la observación de aves marinas, la pesca y el senderismo.




**ESPAÑA & PORTUGAL 2025. ATLAS DE CARRETERAS**
AAVV
MICHELIN

El Atlas Michelin España & Portugal 2025 en formato A4 recoge cartografía detallada y actualizada de carreteras a escala 1/400 000, 64 planos de ciudades, así como lugares de interés y recorridos pintorescos.



# MAIXA ZUGASTI

**Nerabeei zuzendutako eleberria da Maixa Zugastiren azken lana, *Zozabarrak*. Eskolaren baitan gertatutako jazarpen kasua kontatzen da bertan.**

**Zergatik hautatu zenuen gai hau?**
Idaztean, niretzat garrantzitsuak diren gaiak aukeratzen ditut. Kasu honetan, irakasle lanean bizitakoa izan dut abiapuntu. Ikasle asko ikusi ditut egunero infernu hori bizitzen, neurri batean edo bestean. Uste dut gizarte osoak erantzukizunez jokatu behar duela; jarrera horiek irmotasunez gaitzetsi, eta neurriak hartu. Literaturak bizitza agertzen du eta hori izan da nire helburua.

> *“Ikasle asko ikusi ditut egunero infernua bizitzen”*

**Sare sozialak eta gazteak: nahasketa krudelegia sarritan.**
Arazo oso larria bihurtu da. Teknologiak onura handiak ekarri ditu gure bizitzetara; arriskuen ondorioak ere, ordea, pairatzen ari gara. Ildo horretan, gazteak zaurgarriagoak dira, eta jada, nozitzen ari gara sare sozialek sortutako arazoak garunaren garapenean, emozioen kudeaketan, arretan, atsedenean, ikasketetan edo harremanetan. Esanguratsua da ziberjazarpena izatea gazteek beren buruaz beste egiteko arrazoi nagusienetakoa.

**Natura oso presente dago liburuan. Gure animalia izaeraren metafora ederrak ageri dira, izenburutik hasita.**
Natura oso garrantzitsua da niretzat. Duela urte batzuk, Leire Bilbao eta biok Verinesera joan ginen literatura eta naturaren arteko lotura ardatz zuten jardunaldi batzuetara. *El bosque, la ventana y el dedo del niño* testuan bildu nituen nire ideiak. Hausnarketa haien harira erabaki nuen istorio honetan naturari garrantzi handia ematea.

**Norengana nahiko zenuke iristea *Zozabarrak*?**
Izugarri maite dut haur eta gazte literatura. Miren Agur Meabek dio irakurle horientzat idaztea ukendua dela. Erabat ados nago bai idazle eta bai irakurle moduan.




**ZOZABARRAK.**
Maixa Zugasti
EREIN

Liburu bat argitaratzean, hartzailearen adina iradoki ohi da. Nik inoiz ez dut gustuko izan; uste dut helduentzat ere oso aberatsa izan daitekeela gazteen literatura, nahiz idazkera nahiz gai aldetik. Niretzat, behintzat, plazer hutsa da literatura mota hori irakurtzea.

**ANA ABARISKETA**
Kazetaria

---

# MARIMATRAKAK



**Urteetan aritu dira Ana Jaka idazlea eta Iosu Mitxelena marrazkilaria Lea eta Noa ahizpeei bizitza ematen. Liburutegietako apaletan baino, Marimatrakek bizi-bizirik jarraitzen dute ikasgaletan, logeletako gau-mahietan, haurren bizkar-zorroetan, jolas-parkeren bateko eserlekuren batean edo amamaren etxean. Bilduma osatu da, irakurgaiak ordea, ez dira agortu.**

*Bi ahizpa bihurri hauen abenturak idaztean, haurren jakinmina, ondo pasatzeko gogoa eta sentimendu xalo eta batzuetan gatazkatsuak islatzeko aukera izan dut. Umorea beti lagun, denetarik bizi izan dute hamairu liburuetan zehar: etxeko garbiketa lehiaketa zoroa, txakur baten erreskatea, pardelak modan jartzea, eklipse bateko eguna, erraldoi baten barruko ezkutaketa-jolasa... Pentsa, gurasoen ezkontza ere antolatu zuten!*
*Niretzat, halere, garrantzitsuena haurrak disfrutatzen ikustea izan da. Azkenean, edozein haurrari gerta dakizkieken bizipenak dira. Bildumak irakurleen barreak eragiten jarraitzea beste nahirik ez dut.*

**ANA JAKA**



*Noa eta Lea ahizpak marrazteko proposamena jaso eta “Marimatrakak” esaten zietela ikusi nuenean, pentsatu nuen niretzako lan aproposa zela. Badaukat halako joera bat monigote grazioso, bihurri, elastiko, saltari, jolasti, espresibo, hankasartzaile, aldrebes, maitakor.... .absurdoak marrazteko. Ez nago ziur Noa eta Lea absurdoak ote diren, ez dut uste, baina bestelako ezaugarri horietako asko badauzkate. Marimatraka batzuk halakoak izan behar dira.*
*Saiatu naiz nireak diren joera horiek eta Marimatraka batzuenak izan daitezkeenak marrazkietan uztartzen. Dibertigarria izan da. Istorio hauek irakurri dituzten haurrentzat ere dibertigarria izan delakoan...... hurrengo monigoteak marraztu arte!*

**IOSU MITXELENA**

# AGUR KARIBU

**Pentsatu al duzue inoiz bizitza ibilbide prefabrikatu bat dela? Seguruenik, bai. Gizarte planifikatu honetan leku gutxi dago inprobisaziorako, askatasunerako, harridurarako. Horregatik, haurren begirada garbia berreskuratu, eta Anori belaontzian itsasoratzera gonbidatzen zaituztet.**



**AGUR KARIBU**
Maria Porcel
ELKAR

Abenturak eta kalenturak, pozak eta penak, zalantzak eta itxaropenak aurkituko dituzue. Izotz mendi erraldoiak, baleak eta inuitak. Ilaran salto egiten duten karibu basatiak eta lagun ahaztezinak. Eta literaturak bere magia egiten badu, eskuak izoztu eta bihotza berotuko zaizue.
Julenek ikasturtea bukatu berri eta udako oporrak prestatzen ari dela, amama Petraren etxera joateko deia jasoko du. Amama gaixo dago eta laster hilko da, baina ez dauka heriotzaren zain egoteko inolako asmorik. Geratzen zaion denbora ausardiaz bizi, eta bilobarekin partekatu nahi du. Horregatik, bidaia liluragarri bat egitea proposatuko dio: Artikora itsasontzian joatea karibuak ikustera, gaztetan zientzialari gisa egin zuen espedizioan bezala.
Istorio hau abentura zirraragarri baten kronika izateaz gain, bizitzari buruzko lezio aparta izango da Julenentzat nahiz irakurlearentzat, opari bat; amamaren alboan ikasiko du hil arte bizi egin behar dela, pasioz bizi, libre bizi.

# ZURRIOLA BEACH HOSTEL

**Irudimena lagun, esan genezake eraikin batek pertsonen istorioak gordetzen dituela eta garai ezberdinetako kontakizunen lekuko izan dela. Baina, ildo beretik segika, eraikin batek, istorioez gain, Historia ere gordetzen du. Gerra Zibila Donostiara iritsi zenetik, gaur egungo turistifikazio basatira arte, bi familia eta haien ingurukoen bizitzak noraino zeharkatu ditzakete gertakari politiko eta sozialek?**



**ZURRIOLA BEACH HOSTEL**
Lur Gallastegi
ELKAR

Gaztea zen Maritxu Gerra Zibila hasi zenean eta gaztea da Libe egungo Donostia turistifikatuan. Baina, zein harreman dago bien artean? Liburuak aurrera egin ahala, bi emakume hauen arteko harremana argitzen joango da, tartean, familiarteko sekretuak, ezinikusiak eta tirabirak agertuko direlarik.
Diktadura, debekuak, sexualitatea, harremanak, prekarietatea, borroka, aldarrikapenak eta eraikin bat, hau guztiaren lekuko: Zurriola Beach Hostel.
Zurriola Beach Hostel ostatua izango da duela mende bateko bi familien bizipenen agertokia eta haien ondorengo gazte batzuen elkarbizitzaren eta ataka zailen eszenatokia. Gerra batek baldintzatu zituen lehenengoen bizitzak; hiriaren turistifikazioak eta etxejabeen lukurreriak bigarrenak. Jakin-mina piztu eta bukaeraraino eusten dion trama korapilatsu batean nahasita daude guztiak.






# SARI BANAKETA

**2025eko maiatzaren 17an egin genuen 17. elkar Ilustrazio eta Ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia, Donostiako Alde Zaharreko elkar liburu-dendan. Horrelakoetan ohi den bezala, han agertu ziren edizio honetako saritu gehienak, senitartekoak lagun zituztela. Batzuen eta besteen pozak ekitaldia alaitu zuen, eta sariak jasotzean une polit-politak bizi izan genituen.**

Azken urteotako joerari eutsiz, aurten ere parte hartze maila ikaragarria izan da. Kontu egin, 10.000 lagun inguruk bidali du bere ilustrazio, ipuin edo komikia lehiaketara. Gutxi gorabehera, 3.250 ipuin, 5.100 ilustrazio eta 1.240 komiki jaso ditugu. Eta ez da kopuru kontua bakarrik: lanon kalitate maila, oro har, oso ona izan da.






Saria lehenengoak jasotzen **Alaine Agirre**ren *Zer jango du oiloak* ipuina ilustratu zuten umeak izan ziren:

| ILUSTRAZIOA (A MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Ekain Costana** Jakintza Ikastola (Donostia) |
| 2. saria | **Ander Mikelarena** Arantzako herri eskola (Arantza) |

| ILUSTRAZIOA (B MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Aretz Isasa** Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) |
| 2. saria | **Araitz Irazustabarrena** Josemiel Barandiaran (Ataun) |

| ILUSTRAZIOA (C MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Liher Caceres** Etxaurren Ikastola (Aiara) |
| 2. saria | **Eder Barbosa** Gandasegi eskola (Galdakao) |



Ondoren, **Belatz**ek sortutako ilustrazioarekin ipuina idatzitakoek hartu zuten saria:



| IPUINA (D MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Markel Casas** Lizarra ikastola (Lizarra) |
| 2. saria | **Larnia Garai** Urretxindorra ikastola (Bilbo) |

| IPUINA (E MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Maialen Gallastegi** Txintxirri (Elorrio) |
| 2. saria | **Candela Lupiañez** Colegio Vizcaya (Bilbo) |

Kategorietako sariekin amaitzeko, komikietako irabazleek sariak jaso zituzten:

| KOMIKIA (F MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Itziar Eiriz** Eibarko Margo Eskola |
| 2. saria | **Malen Zabaleta** UZ ikastola (Urretxu)) |








Azkenik, urtero bezala lehiaketa honetan kolaboratu duten **Laboral Kutxa** eta **Irrien Lagunak**-ek emandako sariak banatu genituen. Hauek zozketa bidez aukeratzen ditugu, parte-hartzea eskertzeko asmoz:

**IRRIEN LAGUNAK**

Harpidetza

**Maren Mendizabal** Salbatore Mitxelena (Zarautz)
**Aiur Arenaza** Zubi Zaharra ikastola (Balmaseda)
**Amaiur Zubillaga** Erleta eskola (Leitza)

Sari sorpresa

**Jakes Garitano** Aranzadi ikastola (Bergara)




**LABORAL KUTXA**

**Ane Uncilla** Odon de Apraiz (Gasteiz)
**Unai Arostegi** Labiaga ikastola (Bera)
**Nahia Martinez** Eibarko Margo Eskola

AGENDAS
ESCOLARES 2025-2026

MUCHO MÁS
QUE UNA AGENDA

TANTANFAN @tantanfan_







+3



**LOTARAKO NIRE EGUTEGIA**
Guido van Genechten
TTARTTALO

*Lotarako nire egutegia* Xaguren egutegi bat da, zuretzat. Istorio baten eta eranskailuen laguntzaz, lotara joan aurreko eginbeharrak osatzen eta lasai lo egiten ikasiko duzu.



**AMATXOREN BEGIAK**
Lionel Koechlin
ALBERDANIA

Zein da kolorerik politena? Galdera zaila da, batez ere erantzuna eman behar dutenak beldurgarriak direnean: krokodiloa eta lehoia. Nola aurkitu erantzun zuzena? Bada, ordea, erantzun bat, bete-betea.

+3



**KAIXO, PIZTIOK**
Amandine Piu
TTARTTALO

Jan, lo, haserretu, jolastu, plisti plasta ibili… Igela, txoria, matxinsaltoa, tximua edo olagarroa bezalaxe, ni ere piztia barregarri bat naiz!



**OSITO TITO. CHAPUZÓN EN LA PISCINA**
Benji Davies
TIMUN MAS

Cinco mecanismos aptos para pequeñas manos, una historia rimada y muchísimos detalles para observar, señalar y comentar en esta colección de cuentos interactivos protagonizados por Osito Tito.

+5



**EZ DAKIT DINOSAUROAK MARRAZTEN**
Joana Jesus
TTARTTALO

Noizbait esan duzu horrelakorik? "Ez dakit marrazten!". Ba, adi! Hauxe da zure liburua! Dinosauroak marrazten hiru urratsetan ikasiko duzu liburu honekin. Ekin lanari!



**HOGAR, DULCE HOGAR**
Anna Morató García
BEASCOA

La familia Santana se acaba de mudar. La nueva casa está muy contenta. Quiere hacer todo lo posible para ayudarlos a crear un hogar, dulce hogar. Al principio todo va genial, pero pronto las cosas empiezan a torcerse.

+5



**EZ DAKIT ANIMALIAK MARRAZTEN**
Joana Jesus
TTARTTALO

Animaliak marrazten hiru urratsetan ikasiko duzu liburu honekin. Ekin lanari!

+5



**LAGUN MIN-MIN BAT**
Olivier Tallec
TXALAPARTA

Kattagorriak erabaki du lagun min bat behar duela. Baina, zer egin batak elur-malutak erortzen ikustea maite badu, eta besteak erreka ertzean jolastea nahiago badu?



**CUADERNO ESPECIAL ENIGMAS**
Víctor Escandell
ZAHORI IDEAS

Tras el éxito de la colección «Enigmas», llega la edición especial con una selección de trepidantes desafíos aparecidos en sus libros. En este cuaderno encontraras 30 enigmas.



**LITTLE DRAGONS. PEQUEÑOS DRAGONES MÁGICOS**
Susanna Isern
DESTINO

Dragalia es una tierra mágica que guarda un gran secreto: allí viven los Little Dragons, pequeños dragones con poderes fascinantes. Solo los niños elegidos pueden unirse a ellos…




+6




**PERRO APESTOSO EN HOLLYWOOD**
Colas Gutman
BLACKIE BOOKS

En cada entrega de la colección, Perro Apestoso pone a prueba sus habilidades en compañía de su inseparable amigo felino Gatochato.




**HELENEREN GURPIL GAINEKO IDEIA USTEGABEKO**
Sally Rippin
MEZULARI

Munstroen Eskola irakurle hasiberrientzako bilduma ederra da. Helenek nahi du ezkutatu, baina ezin leku egokirik aurkitu. Ideia bat behar du bikaina, eta asmatuko du, alajaina!

+8




**GURE ZIRKUA**
Ane Aierbe / Uxue Urdangarin
IKASELKAR

Honako hau jolas eta denbora-pasa koadernoa da. Gure Zirkua herriz herri dabil, bere espektakulua eskainiz, eta, bide batez, artista bila. Koaderno honetan, neska-mutilak bidaia magiko batean abiatuko dira.




**ALEPOKO ZAZPI PEDIATRAK**
Txabi Arnal / Edu Zelaieta
ELKAR

Magiaz, saltoz eta irriz betetzen ziren kontsultak Alepon. Non eta pediatrak heroiak ziren. Bonbek eta misilek hiria suntsitu zuten arte. Halako batean, zurrumurrua zabaldu zen: zazpi pediatra omen zeuden bizirik.

+8




**EL CLUB DE LOS DIBUJANTES**
Raina Telgemeier / Scott McCloud
MAEVA YOUNG

Raina Telgemeier, la conocidísima autora de *¡Sonríe!*, y Scott McCloud, el gran teórico del cómic, se unen en un dúo de ensueño para hacer un libro en el que ¡cualquier creador es bienvenido!




**MOKO KOKO ETA SEKRETU SAKRATUA**
Nerea Loiola
EREIN

Abentura hau argitzeko erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. Agian inoizko abenturarik zirraragarriena biziko duzu; edo agian ez, agian amesgaiztoa izango da, agian ezingo duzu etxera itzuli. Ausartuko zara?

+10




**URREZKO DUNA**
Miren Agur Meabe
EREIN

La dune d'or kanpinera etorri dira Mara eta gurasoak. A! Eta Pellot, hiru hanka eta begi bakarra duen txakur filosofoa. Egun batean, Marak eta lagunek Marinexa Kakottipiren kondairaren berri izango dute.




**ZOO BAT IKASGELAN**
Joxemari Iturralde
PAMIELA

Lehen eguna ikastetxean, eta Marko irakasleak errieta egin digu ez ditugulako animaliak adiskidetzat hartzen. Kasu egin diogu irakasleari, eta hasi gara animaliak ikasgelara ekartzen…

+10




**WARREN XIII: EL OJO QUE TODO LO VE**
Tanio del Río
EDELVIVES

El joven heredero del Hotel Warren tiene una misión: descubrir un tesoro legendario que está oculto en su antigua mansión. Se cree que el Ojo Que Todo Lo Ve es una fuente inagotable de magia.

+12




**LURRAREN TAUPADAK**
Jon Arretxe
EREIN

Elezaharrez, antzinako borrokez eta naturaren taupada geldiezinez inguratuta hazi da Aturi, aldi berean bizileku eta etsai izan daitekeen oihanean. Bere patua gertaera tragiko batzuek markatuko dute.




**EL LEGADO DE LOS SERCAIN**
Marta Cruces
YOUNG KIWI

El Gran Alzamiento está a punto de celebrarse y todo el Imperio de la Luna Creciente contiene el aliento: los sercain necesitan más hechiceros entre sus filas.




**LA VOLUNTAD DE MUCHOS**
James Islington
HIDRA

En la elitista Academia Catena, un joven fugitivo va a ir desvelando las capas de un elaborado misterio y secretos capaces de cambiar el mundo a lo largo de esta nueva saga de fantasía del autor superventas internacional James Islington.



# NOBEDADEAK

## *liburuak*



### IRAGAN ATERGABEA
Julen Belamuno
ELKAR

Istorio errealista bezain misteriozkoak bildu ditu Belamunok ipuin liburu honetan, bitxiak baina sinesgarriak, hurbilak eta aldi berean harrigarriak, estilista bikainenek bakarrik dezaketen idazkera batez onduak.



### EVELYN HUGOREN ZAZPI SENARRAK
Taylor Jenkins Reid
EREIN

Taylor Jenkins Reidek nobela liluragarri eta humanoa eraiki du, ospearen distira gainditzen duena, ausarkeria zigortzen duen mundu batean emakume izateak zer esan nahi duen esploratzeko.



### ERRUKI ONEZ
Dennis Lehane
IGELA

Dennis Lehanek —*Mystic River* eta *Shutter Island* eleberrien egileak— tentsio handiko nobela hunkigarria idatzi du. Orrialde bakoitzak eskuak erretzen dizkigu, infernuari ere aurre egiteko prest dagoen ama baten suarekin.



### IRAILEKO ZAZPI EGUN
Eneko Azedo
ELKAR

Emakume gazte bat bere birraitonak egindako etxera doa bizitzera, Getxo eta Plentzia bitarteko kostan, itsaso aurrean eraikitako etxe bakarti bat. Etxe hori txukuntzen eta bertako txokoak ezagutzen hasiko da.



### CARMILLA
Sheridan Le Fanu
EREIN

Sheridan Le Fanuren maisulan gotikoa, literaturako lehenengo banpiro-istorioetako bat da. Nobelak Laurari jarraitzen dio, neska gazte bat Carmilla misteriotsuarekin harreman aztoragarrian nahastuko dena.



### SENDATZEKO AMETSAK
Pello Añorga
BALEA ZURIA

Herri askotan izan dira pertsonaia xelebreak, baina gutxi Kalixto bezalakoak. Hain da arlotea eta alde berean hain prestua, hain zabarra eta hain fina, hain bakartia eta hain soziala, hain eroa eta jakintsua!



### RESET
Aitziber Etxeberria
EREIN

Alegiaroaren 46. urtea. Klaustro Zuriak gidatzen duen M eremuko gizarte teknologiko eta aurreratuan, ustezko zuzentasunaren distira iluntzen duten itzal uneak hedatzen hasi dira han-hemenka.



### ANATOMIA BERTIKALAK
Lierni Ibargutxi
BALEA ZURIA

*Anatomia bertikalak* minari buruzko poema-liburu gordina da, erraietatik idatzia eta irudi eta metafora harrigarriak biltzen dituena. Liburu landua, iluna eta argitsua da aldi berean, sakona eta ausarta, mozorrorik gabekoa.



### KUNTZAK ETA KERAK
Sara Uribe-Etxebarria
BALEA ZURIA

*Kuntzak* eta *kerak* poema-liburuak jaso du aurtengo DK Poesia Saria. Mundu eta atmosfera propioa dauka, eta poesiaren eta zientziaren arteko bidegurutze moduko bat bilatzen du.



### DOLU-EGUNEROKOA
Roland Barthes
KATAKRAK

1977ko urriaren 26tik, haren amaren heriotzaren biharamunetik, 1979ko irailaren 15era Roland Barthes-ek dolu-eguneroko bat idatzi zuen. 330 sarrera osatu zituen, gehienak datarekin.

TÍTULOS DESTACADOS



9788410519770 9788410519626 9788410519732 9788410519749 9788410519756 9788410519794 9788410516236 9788410516694 9788410516700 9788411504317

www.panini.es




**EUSKARAREN MENDE MAGIKOAK**
Juan Martin Elexpuru
ELKAR

Erromatar inperioaren gainbeheratik Nafarroako Erresumaren hasierara-edo, euskararen baitan hainbat aldaketa gertatu zen. Gai horien gaineko hipotesiak azaldu eta haien aldeko eta kontrako argudioak bildu ditu Elexpuruk.




**IRAGANAREN LEKUKO**
Batzuk
TXALAPARTA

Euskal Herriko historia oso bat, Euskal Herritik eta euskaratik idatzia, eta, lan oso gutxik bezala, pandemiaren edo ETAren desegitearen osteko Euskal Herria ere barne hartzen duena.




**GATAZKA ETA ABUSUA EZ DIRA GAUZA BERA**
Laura Macaya
KATAKRAK

Liburu honek Sarah Schulmanen *Conflict is not abuse* (2016) liburutik hartzen du izenburua, eta zigorraren logikak gatazken konponketa eta osatzea ezinezko bilakatzen duela hausnartzen du.




**ABADIA. JAKINTSUA ETA BERE GARAIA**
Iñigo Sagarzazu
ELKAR

Anton Abadia (1810-1897) geografoa, astronomoa, hizkuntzalaria, etnografoa eta beste hainbat alorretako aditua izan zen. Denboraren poderioz, haren lorpen zientifikoek distira galdu dute, baina haren biografia harrigarria da.



**HAU MUNDU PETRALA GUREA!**
Joxe Iriarte *Bikila*
DAKIT

Liburu honetan idazleak bere bizitzan euskal gizarteari eskaini dizkion teorien jatorrietan murgiltzeko aukera ematen du. Bere ibilbide ideologikoa garatzeko oinarrian izan dituen pentsalariak ezagutuko ditu irakurleak.




**OZEANOEN BALIOA**
Adolfo Uriarte
SAURE

Gaur egun ere oso handia da ozeanoen gaineko gure ezezagutza. Misterioa nagusi da. Liburu hau ur handitan murgiltzen da ozeanoei buruz jakin nahi dugunaren berri emateko.




**GERRAKO UMEAK. HIRU BIZIPEN**
Alberto Bargos Cucó
BETA III MILENIO

Liburu honek, modu ulergarri batez, hiru umeren bizipenak eta sentimenduak gogora ekarri nahi ditu. Ramón 1929an jaio zen. Begoña eta Toñi 1931n jaio ziren. Muskizen bizi ziren gerra piztu zenean.




**GABRIEL ARESTIK EREINDAKOAK (1975-2025)**
Batzuk
EHU

Genero literario, komunikatzeko modu, ikertzeko bide eta gogoeta egiteko era asko uztartu ditu omenaldi-liburu honek. Eta testuekin batera, marrazkiak, lan grafikoak, akuarelak, irudi digitalak, komikiak...




**AHOTSAK GORPUZTUZ. EUSKAL EMAKUMEZKOEN LITERATURA (1970-1985)**
Batzuk
EHU

2018 eta 2022 bitartean egoera nabarmen bik aldatu zuten euskal literaturaren panorama. Bost deialdiko epe horretan euskal emakume idazleek lau aldiz irabazi zuten sorkuntzako Euskadi Saria.




**MUGAKO DRAGOIAK. SAN CARLOSEKO KANOIAK**
Gregorio Muro
HARRIET

1780. Beitia sarjentua eta bere dragoiak Texasko Azuzena Acostarekin batera doaz. Espainia Berrian barneratu den talde bati jarraika ari dira, zeina baitago franko-kanadarrez eta sauk-renard indiarrez osatuta.




**MAURIZIA. BIZIMINAREN POZA**
Garbiñe Ubeda
IKASTOLEN ELKARTEA

Garbiñe Ubedaren gidoiarekin eta Garluken ilustrazioekin, Maurizia Aldaiturriaga pandero--jolearen ekarpena jaso du komiki honek. Lehenago *Xabiroi* aldizkarian agertu da.




**DINOSAURS SANCTUARY 5**
Itaru Kinoshita
HARRIET

Suzume Suma dinosauro zaintzaile gisa hasi da gainbeheran dagoen Enoshima Dinoland dinosauro parkean. Katase bere adinkidearekin gorabeherak izanda ere, praktikak gainditu ditu eta Karinen zeratopsiarrekin aritzera doa.



# NOVEDADES
## *libros*




**LA ESTUDIANTE DE TIANANMÉN**
Lai Wen
MAEVA

Pekín, años 1970. Lai vive con sus padres, su abuela y su hermano menor en un pequeño apartamento en una zona de clase trabajadora. Pensativa y observadora, pasa los días con sus amigos y cerca de su abuela.




**MI NOMBRE ES EMILIA DEL VALLE**
Isabel Allende
PLAZA&JANÉS

San Francisco, 1866: una monja irlandesa da a luz a una niña a la que llama Emilia del Valle. Criada por su cariñoso padrastro, Emilia se convertirá en una joven brillante de gran personalidad e independiente.




**AGUAS OSCURAS**
Charlotte Link
GRIJALBO/DARGAUD

Nuevo thriller de la reina del suspense europeo. Kate Linville se enfrenta a su caso más inquietante. Dos familias acampadas en la costa escocesa son víctimas de un ataque brutal mientras duermen.




**LA MUERTE AJENA**
Claudia Piñeiro
ALFAGUARA

Verónica Balda conduce uno de los programas de radio más escuchados. Cierto día, recibe una noticia que cambiará el curso de su vida: una joven cayó de un quinto piso en el barrio de Recoleta.




**LAS RECETAS PERDIDAS DE LA TABERNA KAMOGAWA**
Hisashi Kashiwai
SALAMANDRA

Regentada por el antiguo detective Nagare Kamogawa y su hija Koishi, disimulada en las populosas calles de Kioto, se halla la taberna Kamogawa, un pequeño local donde se come maravillosamente bien...




**HORIZONTE ARTIFICIAL**
Maxi Iglesias
ROCA

Rodraprex es el imperio textil más importante de España. Arturo Rodríguez lo levantó de la nada. La directora ejecutiva es su hija Mónica, una mujer emprendedora que se encuentra en la cima.




**LA BODA DE LA ASISTENTA**
Freida McFadden
SUMA DE LETRAS

Un trepidante relato que completa la serie best-seller *La Asistenta*. Para los lectores que se quedaron con ganas de saber más sobre la historia de Millie y Enzo, llega una emocionante sorpresa...




**EL AÑO QUE MARGARITA SE FUE A PARIS**
Mamen Sánchez
ESPASA

¿Realismo mágico? No. La magia de la realidad. El esperadísimo regreso de Mamen Sánchez con una novela que nos recuerda la importancia de vivir nuestras propias vidas cuando los hijos vuelan.




**LA ESPADA FULGURANTE**
Lev Grossman
DESTINO

Cuando el joven caballero Collum llega a Camelot para competir por un lugar en la Mesa Redonda, descubre que ha llegado demasiado tarde: el rey Arturo murió hace dos semanas en la batalla de Camlann.




**PECADOS 4. REY DE LA DESIDIA**
Ana Huang
CROSSBOOKS

Déjate tentar por la edición especial de la cuarta entrega de la serie *Pecados* de Ana Huang. Xavier Castillo tiene el mundo a sus pies, pero, para disgusto de su padre, no tiene ningún interés en el imperio familiar.




**LA FRAGANCIA DEL MAÑANA**
Francesca Giannone
DUOMO

Salento, 1959. Lorenzo y Agnese lo han perdido todo. Y lo comprenden cuando su padre, con esos ojos tristes que lo han acompañado toda su vida, anuncia que ha vendido la fábrica de jabones de la familia.




**LOS ASESINOS DE LA COLA DEL GATO SIN VIDA**
P. Djèlí Clark
OBSCURA

En la antigua ciudad de Tal Abisi opera una organización de asesinos conocida como la Cola del Gato sin Vida. Sus miembros, profesionales hábiles y discretos, trabajan por encargo.




**LAS BIBLIOTECARIAS DEL FRENTE**
Janet Skeslien Charles
NAVONA

Nueva York, 1918. Tras recibir la noticia de que la Gran Guerra desgarra Europa, Jessie Carson decide abandonar la tranquilidad de los anaqueles de la Biblioteca Pública de Nueva York y cruzar el océano.




**UN LUGAR EN EL DESORDEN**
Ana Cabo
KIWI

¿Hospedarme casi gratis en otro país por cuidar animales? Un sí rotundo. Eso es lo que pensó Becky ante la oportunidad en Portugal. Las condiciones eran encargarse del loro, el hámster y el perro de Luis.




### APRENDIZ DE ASESINO
Robin Hobb
NOCTURNA

Traspié, hijo bastardo del príncipe heredero al trono de los Seis Ducados, carece de aliados. Solo su vínculo mágico con los animales, el antiguo arte conocido como la Maña, le brinda compañía.




### LA EXTINCIÓN DE IRENA REY
Jennifer Croft
ANAGRAMA

La gran escritora polaca Irena Rey, novelista genial y eminente cuyo nombre suena cada año en las apuestas para el Nobel, acaba de concluir su última obra en casi completo aislamiento.




### MAMUK
Txomin Badiola
EL ACANTILADO

A finales del siglo XV, Béranger de Bourgogne recibe el encargo de proseguir la construcción de una iglesia en una villa vizcaína, tras el fallecimiento del anterior maestro de obras.




### SANFERMINES DE 1978: LOS VICTIMARIOS
Sabino Cuadra
TXALAPARTA

Muchas investigaciones han abordado la violencia policial de los Sanfermines de 1978, pero pocas han señalado directamente a quienes lo ordenaron, planificaron y justificaron. Este libro lo hace.




### CRÓNICA DE LA TRANSICIÓN POLÍTICA EN NAVARRA
Javier Enériz
PAMIELA

Javier Enériz nos hace revivir aquellos vertiginosos años comprendidos entre el verano de 1975 y finales de 1984 y nos teletransporta a los escenarios y sucesos que jalonaron la Transición en Navarra.




### POR NAVARRA
Álvaro Díaz Santesteban
EUNATE

Este libro es una herramienta para descubrir de una manera amena y visual historias, lugares y figuras de nuestro pasado a través de diez originales recorridos, que son cada uno de los diez capítulos.




### DEL CAMPO A LA TRINCHERA
Iker Ibarrondo
TXALAPARTA

Este ensayo ofrece una panorámica general de las transformaciones que marcaron el devenir del deporte en la primera mitad del siglo XX, con especial atención a su evolución en Euskal Herria.




### DIARIO DE ANNE FRANK (ILUSTRADO)
Anne Frank
LUMEN

María Hesse despliega su estilo inconfundible y su trazo más sensible para ilustrar uno de los grandes clásicos de la literatura universal.




### LA MUJER QUE APAGÓ SU MÚSICA
Miguel Ángel Montero
AGUILAR

Tras el éxito mundial *El hombre que tenía miedo a vivir,* Miguel Ángel Montero ha escrito una historia de cambio y superación que ayuda a equilibrar nuestra brújula interna y nos guía hacia la pasión y la libertad.




### LA TIRANÍA DE LA MENTIRA
Cristina Martín Jiménez
MARTÍNEZ ROCA

La máxima "la información es poder" ha adquirido en las últimas décadas un carácter entre perverso y visionario, que amenaza con aniquilar el pensamiento crítico de las sociedades e imponer la era del caos.




### CON ALGORITMOS Y A LO LOCO
Clara Grima
ARIEL

Una divertida apología de los algoritmos que nos recuerdan que la humanidad no habría llegado hasta donde está, para bien o para mal, sin sus asombrosas aplicaciones.




### EL VERANO DE CERVANTES
Antonio Muñoz Molina
SEIX BARRAL

*El verano de Cervantes* surge de toda una vida leyendo el Quijote. El autor entrevera recuerdos de su infancia y de sus primeras lecturas con la revelación del lugar que *Don Quijote* ha ocupado en su vocación literaria.



# NOBEDADEAK

## musika



**PELIGRO (LP + CD)**
Reincidentes
MALDITO RECORDS

Vigésimo segundo disco de Reincidentes, un trabajo compuesto de temas inéditos. Son ocho canciones y una especie de reprise final que por sí sola podría resumir la filosofía de todo el trabajo.



**MAIZTER**
Maite Larburu
MAITE LARBURU

Soila eta soinu naturalistez betea, Larburuk berak grabatu du diskoa. Gitarra klasikoa, ahotsa, biolina eta soinu organikoak, txori, erreka, baso, haize, auto, grua eta auzoen zaratarekin bizi dira.



**OROIT LOU REED**
Mikel Telleria
SONORA

New Yorkeko kantari, poeta eta idazleari eskainitako diskoa egin du Telleriak, non euskaraz hamar kantu berri biltzen baititu, musikari hark erabiltzen zuen konposatzeko modua aintzat hartuta.



**THE MARKER STONE**
Alboka
AZTARNA

Alboka taldearen sorreraren 30. urteurrenean, diskoa kaleratu dute oroigarri. Alan Griffin zenaren hamar doinu berri dakartza, 2022an eta 2023an grabatutakoak, eta, gainera, taldearen beste hainbat abesti.



**IRAGANA BETIKOTZEN**
Garikoitz Mendizabal/Josu Okiñena
GARIKOITZ MENDIZABAL

Josu Okiñena pianojoleak eta Garikoitz Mendizabal txistulariak diskoa osatu dute euskal ondare musikalaren berreskurapen eta zabalkundeari ekiteko konpromisoa hitzetatik ekintzetara eramanez.



**BERRERAIKITZE AROA**
Heitxi
BAGA BIGA

Diskoa itxaropen eskutitz bat da, aldaketa eta momentu hobeagoak eskatzen dituena, bai eta iragana ospatu eta etorkizun hobeago baten alde borrokatzen duena. Abestiek bidaia introspektibo batera garamatzate.



**EL CUERPO DESPUÉS DE TODO**
Valeria Castro
GRAN SOL

Valeria Castro lanza una lección de honestidad sobre dónde debemos colocar los límites a la hora de enfrentarnos a ciertos bucles de toxicidad. Un disco sincero, de desnudez absoluta y corazones partidos.



**CUENTAS PENDIENTES**
Bunbury
WARNER

Otro giro de tuerca de Bunbury, ya que se aleja radicalmente de su anterior álbum, *Greta Garbo* (2023), y aún más de discos anteriores, más contemporáneos y con ciertos matices electrónicos.

### DVD-AK



**WICKED PARTE 1**
John M Chu
COLUMBIA

La historia jamás contada de las brujas de Oz está protagonizada por Elphaba, una joven que aún no ha descubierto su verdadero poder, y por Glinda, una joven que aún no ha descubierto su verdadera pasión.



**MUFASA, EL REY LEÓN**
Barry Jenkins
DIVISA RED

El Rey León, Rafiki, cuenta la leyenda de Mufasa a la joven cachorra Kiara, hija de Simba y Nala, junto a Timón y Pumba haciendo de las suyas.








+4



## MIXAJOLOTE

HABA

Mixajolote es un juego de cartas de observación y reacción en el que todos los jugadores juegan al mismo tiempo.

+5




## MATRÍCULAS

FALOMIR

Jolas kitzikagarri honetan matrikuletako zenbaki eta hizkiak erabiliko dituzu hiztegi arazoak eta eragiketa matematikoak argitzeko.

+5



## DANZA DEL HUEVO

HABA

Jai giroko jolas klasiko honetan mugimenduak, erreflexuak eta dibertsioa dira nagusi. Eutsi ahalik eta arrautza gehienei zure gorputz atalak baliatuz.

+6




## CAKES BOX

ÁTOMO GAMES

Muestra una carta de pedido, gira y ordena tus pasteles para que coincidan con el pedido. Cuando lo tengas... ¡toca el timbre!

+6




## NIJI

MERCURIO

Niji es un juego de cartas para niños en el que se divertirán con los colores y tendrán que hacer las mejores combinaciones para ganar puntos.

+8




## HAPPY MOCHI

ASMODEE

Deshazte de tus cartas lo más rápido posible para sumar el menor número de puntos en cada ronda, pero recuerda: ¡no puedes reorganizar tu mano!

+10




## SILABA BEROA

IRATXE ESNAOLA

Zure hiztegia eta buru-bizkortasuna proban jarriko dituen jolas eroa. Idatzi hitzak baldintzak jarraituz, baina kontuz: denbora aurka izango duzu. También disponible en castellano.






IKASTURTE BERRIRAKO PREST!
%10eko deskontua
elkar liburu-dendan zure testuliburua erreserbatzean papertegian %10eko deskontua izango duzu
Reserva los libros de texto en tu librería elkar y obtendrás un 10% de descuento en papelería
elkar
elkar
www.elkar.eus